Emaitzen txostena

2019

# Euskal Herriko **parte-hartze kulturalari** buruzko inkesta

Kulturaren Euskal Behatokiaren Estatistika eta Azterketa Bilduma 40

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac

Argitaraldia: 1.a, 2019ko azaroa

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa: ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana: SIADECO, S.COOP.

Itzultzailea: LETE ITZULPENAK-TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa: EPS COMUNICACIÓN

Inprimategia: SERVINFORM

ISBN: 978-84-457-3482-7

Lege-gordailua: VI 738-2019

Emaitzen txostena

# Euskal Herriko **parte-hartze kulturalari** buruzko inkesta

# EDUKIEN AURKIBIDEA


**Hitzaurrea** ..... 11

**Aurkezpena** ..... 13

1. **Laginaren ezaugarriak** ..... 15

2. **Kulturarekiko jarrera orokorrak** ..... 19

2.1 Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa ..... 19
2.2 Kultura-informazioko maila ..... 20
2.3 Kultura, gizarte-loturen sortzaile ..... 21
2.4 Parte-hartze kulturalerako motibazioak ..... 22

3. **Kultura-praktikak** ..... 27

3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak ..... 27
3.1.1 Antzerkira joatea ..... 27
3.1.2 Dantza-ikuskizunetara joatea ..... 28
3.1.3 Kontzertuetara joatea ..... 29
3.1.4 Grabatutako musika entzuteko maiztasuna ..... 30
3.1.5 Zuzeneko beste ikuskizun batzuk ..... 30
3.2 Ikus-entzunezko praktikak ..... 31
3.2.1 Zinemara joatea ..... 31
3.2.2 Bideojokoak ..... 33
3.2.3 Komunikabideak ..... 34
3.3 Irakurtzea ..... 36
3.3.1 Liburuak ..... 36
3.3.2 Egunkariak eta aldizkariak ..... 37
3.3.3 Liburutegira joatea ..... 39
3.4 Erakusketetarako bisitak ..... 41
3.4.1 Museoetarako asistentzia ..... 41

3.4.2 Arte-galerietarako asistentzia ... 41
3.4.2 Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua ... 42
3.5 Laburpen konparatiboa ... 43

4. **Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak** ... 46

4.1 Asoziazionismo kulturala ... 46
4.2 Amateur mailako praktika artistikoak ... 47
4.3 Arte-trebakuntza ... 50

5. **Praktika digitalak** ... 52

5.1 Internetera sartzea ... 52
5.2 Kultura-praktika digitalak ... 53
5.3 Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea ... 54
5.4 Sare sozialak parte-hartze kulturalean ... 56

6. **Euskarazko parte-hartze kulturala** ... 58

6.1 Euskara jakitea ... 58
6.2 Euskarazko parte-hartze orokorra ... 59
6.3 Euskarazko kultura-praktikak ... 61
6.3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak euskaraz ... 61
6.3.2 Euskarazko ikus-entzunezko praktikak ... 63
6.3.3 Euskarazko irakurketa-praktikak ... 65
6.3.4 Laburpen konparatiboa ... 67
6.4 Euskarazko praktika digitalak ... 69
6.4.1 Euskarazko irakurketa eta musika digitalak ... 69
6.4.2 Euskarazko sare sozialak eta foroak ... 70
6.4.3 Laburpen konparatiboa ... 71
6.5 Amateur mailako praktikak: bertsolaritza ... 72
6.6 Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak ... 73
6.7 Informazio-kanalak ... 75
6.8 Eskaintzaren mugak ... 76

**Eranskinak** ... 77

1. Eranskina: **Gurutzaketa-grafikoak** ... 79
2. Eranskina: **Inkestaren fitxa teknikoa** ... 152

# GRAFIKOEN AURKIBIDEA


1 Grafikoa. **Laginaren-ezaugarriak, administrazio-eremuaren (A), sexuaren (B), udalerriaren dimentsioaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera** ..... 16

2. Grafikoa. **Ikasketa-maila, adinaren arabera (%)** ..... 18

3. Grafikoa. **Euskararen ezagutza, adinaren arabera (%)** ..... 18

4. Grafikoa. **Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa** ..... 19

5. Grafikoa. **Pertsonak, parte-hartze kulturalaren garrantziari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)** ..... 19

6. Grafikoa. **Kultura-informacioko mailaren auto-balorazioa** ..... 20

7. Grafikoa. **Pertsonak, duten kultura-informazioko mailari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)** ..... 20

8. Grafikoa. **Pertsonak, kultura-jarduerari esker gizarte-loturak sortu dituzten pertzepzioaren arabera (%)** ..... 21

9. Grafikoa. **Kultura praktiketarako motibazioak (%)** ..... 23

10. Grafikoa. **Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)** ..... 24

11. Grafikoa. **Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)** ..... 25

12. Grafikoa. **Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)** 26

13. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 27

14. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 28

15. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ..... 29

16. Grafikoa. **Pertsonak, grabatutako musika entzuten duten maiztasunaren arabera (%)** ..... 30

17. Grafikoa. **Zuzeneko arteek duten oihartzunaren rankinga, biztanleria-talde ezberdinen arabera (%)** ........ 31

18. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 32

19. Grafikoa. **Pertsonak, azpi-tituludun filmak edo bikoiztutakoak nahiago izatearen arabera (%)** ........ 32

20. Grafikoa. **Pertsonak, bideojokoak erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ........ 33

21. Grafikoa. **Pertsonak, irratia eta telebista erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)** ........ 34

22. Grafikoa. **Pertsonak, irratia eta telebista modu digitalean erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)** ........ 35

23. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko hamabi hilabeteetan irakurri duten liburu kopuruaren arabera (%)** ........ 36

24. Grafikoa. **Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ........ 37

25. Grafikoa. **Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)** ........ 37

26. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 39

27. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietarako kultura-jardueretara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 40

28. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 41

29. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 42

30. Grafikoa. **Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)** ........ 42

31. Grafikoa. **Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)** ........ 43

32. Grafikoa. **Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)** ........ 44

33. Grafikoa. **Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)** ........ 46

34. Grafikoa. **Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (%)** ........ 47

35. Grafikoa. **Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak** ..... 47

36. Grafikoa. **Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)** ..... 48

37. Grafikoa. **Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)** ..... 49

38. Grafikoa. **Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotutako jardueraren bat egin dutenak (%)** ..... 50

39. Grafikoa. **Arte- edo kultura-trebakuntzako alorren rankinga (%)** ..... 51

40. Grafikoa. **Internetera erregularki sartzen diren pertsonak (%)** ..... 52

41. Grafikoa. **Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)** ..... 53

42. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 54

43. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen bateria harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 55

44. Grafikoa. **Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak beren tipologiari jarraikiz, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 55

45. Grafikoa. **Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren ranginga (%)** ..... 57

46. Grafikoa. **Euskaren ezagutza-maila, gaitasun ezberdinen arabera (%)** ..... 58

47. Grafikoa. **Biztanleria euskal hiztunaren bilakaera, 2008tik 2018ra (%)** ..... 59

48. Grafikoa. **Normalean euskarazko kultura-jardueretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 60

49. Grafikoa. **Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 61

50. Grafikoa. **Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 62

51. Grafikoa. **Azkeneko 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 63

52. Grafikoa. **Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 64

53. Grafikoa. **Irratia eta telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 65

54. Grafikoa. **Euskarazko irakurketa-maiztasuna azkeneko 3 hilabeteetan, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 66

55. Grafikoa. **Euskarazko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 67

56. Grafikoa. **Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 68

57. Grafikoa. **Euskarazko kultura-praktiken bilakaera 2008tik 2018ra bitartean, biztanleria osoaren artean (%)** ..... 68

58. Grafikoa. **Euskarazko praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 69

59. Grafikoa. **Euskarazko praktika kultural aktiboek esparru digitalean izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 71

60. Grafikoa. **Praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 72

61. Grafikoa. **Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)** ..... 72

62. Grafikoa. **Biztanleria osoan bertsolaritza praktikatzen duen pertsona kopuruaren bilakaera (%)** ..... 73

63. Grafikoa. **Euskarazko parte-hartze kulturala azaltzeko arrazoi subjektiboen rankinga (%)** ..... 73

64. Grafikoa. **Pertsonek euskarazko kultura-eskaintza ezagutzen duten informazio-kanal nagusiak (%)** ..... 75

65. Grafikoa. **Eskaintzaren muga nagusiak, biztanleriaren arabera (%)** ..... 76

# HITZAURREA

Nekez aurkituko dugu gure herriaren historian bizi dugun unea baino momentu kultural interesgarriagorik. Inoizko eskaintzarik oparoena daukagu ikus-entzunezkoan, arte eszenikoetan, musikan, literaturan edota artean. Eta neurtzen erraza ez bada ere, esango nuke behin ere ez dugula eduki horrenbeste talentu, edo ez behintzat talentu handia duten horrenbeste sortzaile.

Orain urte batzuk sinesgaitzak gertatuko ziratekeen gertakizunak ikusi ditugu azken urteotan, eta sektore guztietako zenbait sortzaileren oihartzuna gure mugez harago heldu da. Badugu, beraz, kantitatea, kalitatea eta foro espezializatuen aitortza; baina, ba al du gure kultur ekosistemak euskal gizartean mereziko lukeen agerikotasuna? Zer neurritan ezagutzen du gure gizarteak kulturaren munduan gertatzen ari den bigarren pizkunde hau?

Eskuartean duzun txostena gure gizartearen kultur ohituren erradiografia bat da. Helburua da, hain zuzen ere, kulturak herritarren praktiketan duen pisua erakustea, irudi zehatz bat eskainiz. Txostenean mundu osoko sortzaileek eta kultur adierazpenek gurean duten harrera neurtu da, baina arreta berezia jarri zaio bertoko sortzaileen kultur kontsumoari eta euskarazko kulturaren kontsumoari. Ondorioz, emaitzek irudi bat ematen dute dauden indarguneen eta hobetu beharreko alderdien inguruan. Irudi bat ematen dute kulturak gure herrian bizi duen uneaz eta, era berean, gure kulturak herri honetan duen pisuaz.

Azterlanak, beraz, datu zehatzak ematen dizkigu kulturaren munduan bolo-bolo dabilen gai baten gainean, interes handia dago-eta gai honen inguruan. Kultura kontsumitzeko modua asko aldatzen ari da azken urteotan eta, horren ondorioz, kultura bera ere aldatzen ari da. Tsunami digitalak, doakotasunaren kulturak edota globalizazioak lehengo agertokia zeharo aldatu dute. Eta horrek diagnosia fintzeko ahalegin bat eskatzen du.

Behatokiaren sorrerak 2006an horrelako ikerketak aurrera ateratzea ahalbidetu zuen, eta ez da nolanahiko kontua, kulturaren kudeaketak ikerketa behar baitu dagoen errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzeko. Ezagutza hori izango da abiapuntua kultur politikak era egokian kudeatzeko.

Bingen Zupiria Gorostidi
*Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua*

# AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiak *Euskal Herriko parte-hartze kulturalaren Inkestaren* emaitzak ezagutarazi nahi ditu. Azterlan zabala da, lurraldeari dagokionez –EAEko, Nafarroako Foru Komunitateko zein Ipar Euskal Herriko biztanleen kultura-praktikak aztertzen baititu–, bai eta alderdi kontzeptualari dagokionez ere, laguntzarekin, bisitekin, irakurketarekin eta kultura-jarduera ezberdinak ikustearekin edo entzutearekin lotutako praktikak, osagai pertsonal sortzaileagoa duten amateur mailako praktikak eta prestakuntza, eta kultura-edukiei lotutako praktika digitalak hartzen baititu kontuan.

Helburua da biztanleen parte-hartze kulturalaren argazki xehatua emango duten adierazleak eskuratzea. Euskal Herrian bizi diren 15 urtetik gorako 6.296 laguneko lagin adierazgarri bati aplikatu zaio inkesta. Administrazio-eremuaren (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria), udalerriaren dimentsioaren, sexuaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren arabera haztatu da inkesta; horrek aukera ematen du, biztanleria-taldeen arabera, parte-hartze kulturalaren gizarte-banaketa ezagutzeko[1].

Aurkezten den txostena deskribatzailea da, lau txosteneko sortako lehenengoa, EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herriari buruzko berariazko ikuspuntuak jasotzen dituena. Gainera, inkestako informazioaren aberastasunak praktiken azalpen, berariazko biztanle-segmentuei bideratutako analisi, beste ingurune batzuekiko alderaketak eta beste hainbat alderdi sakonago interpretatzeko bidea ematen du. Emankorra izango dela aurreikusten dugun sorta bateko lehenengo azterlana da, beraz.

Badago aurrekari bat, orain dela hamar urte egin zena: *Euskal Herriko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoen inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokiak bultzatutako lehenengo estatistika-operazioa. Biztanleriaren kultura-praktika nagusien azkeneko hamarkadako bilakaeraren irakurketa alderatua egiteko ezinbesteko ardatza da.

Sei kapitulutan aurkezten da informazioa. Lehenengo kapituluan, erabilitako laginari buruzko zehaztapenak jasotzen dira.

Bigarren kapituluak, biztanleriak parte-hartze kulturalaren inguruan dituen jarrerei, horri ematen dion garrantziari, duen informazioari, kulturak gizarte-loturak sortzeko duen eraginari eta pertsonak kultura-praktikak egitera bultzatzen dituzten motibazioei buruzko adierazleak jasotzen ditu.

---

1 Eranskinean ikus daiteke laginaren fitxa.

Hirugarrenean, antolatutako kultura-praktiken xehetasuna jasotzen da, tipologien arabera: praktika eszenikoak eta musikalak, ikus-entzunezkoak, irakurketa-praktikak eta erakusketetara bisitak.

Laugarren kapituluak elkarteetako parte-hartzea eta amateur mailako praktikak deskribatzen ditu, arte-jarduerak egiteari dagokionez, zein arte- eta kultura-ezagutzak eta -abildadeak eskuratzeari eta alor horietako prestakuntzari dagokionez.

Praktika digitalen ezaugarri diren adierazleetan sakontzen du bosgarren kapituluak; praktika horiek funtsezkoak dira gaur egungo parte-hartze kulturala ezagutzeko.

Euskarazko parte-hartze kulturala deskribatzen du seigarren kapituluak. Praktika ezberdinetan eragina duten beste aldagai batzuez gain, arreta berezia eskaintzen zaio euskararen lurralde ezberdinen arteko alderaketari.

Amaitzeko, grafiko xehatuen eranskin osoa eta inkestaren fitxa teknikoa ditu txostenak.

# 1. LAGINAREN EZAUGARRIAK

**Euskal Herrian bizi diren 15 urtetik gorako 6.296 kasuk** osatzen du analisiaren lagina. Datuak haztatuta daude, biztanleria behar bezala ordezkatzeko, administrazio-eremuaren (EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria), udalerriaren dimentsioaren, sexuaren, adinaren eta euskararen ezagutzaren (euskal hiztunak edo ez) arabera orekatuz. 2. eranskinean, inkestaren fitxa kontsulta daiteke.

Grafiko batzuek, "Biztanleria osoa"[2] ez den beste oinarri bat dute portzentajeak kalkulatzeko. Kasu horietan, oinarritzat balio duen biztanleria-taldea hautatzen duen iragazkia eta guztizkoarekiko duen pisua adierazten dira.

Laginaren ezaugarriei dagozkien aipatutako aldagaiek, ikasketa-mailaren aldagaiarekin batera, gurutzaketa-aldagai gisa balioko dute. Aldagai horiek portzentaje edo batez besteko orokorrarekiko aldeak antzematen zein mailatan laguntzen duten adierazteko, **aldeen intentsitatea identifikatzeko kolore-eskala** bat erabiliko da:

| ALDAGAIAK EZ DU ALDERIK AZALTZEN | ALDAGAIAK ALDE TXIKIAK AZALTZEN DITU | **ALDAGAIAK ALDE NABARMENAK AZALTZEN DITU** |
|---|---|---|

Adibidean bezala, hizki lodiz ere nabarmentzen da emaitza edo batez besteko orokorrarekiko alderik handienak azaltzen dituzten aldagaiak identifikatzen dituen kategoria.

Honako hauek dira gurutzaketa-aldagaiak osatzen dituzten kategoriak:

- **Administrazio-eremua.** EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria identifikatzen ditu.
- **Sexua.** Gizona edo emakumea.
- **Udalerriaren dimentsioa.** Biztanleria-tamainaren araberako tarteak identifikatzen ditu, eta aparte jasota daude hiriburuak.
- **Adina.** 10 urteko tarteak, 15 urtetik 65 urtera. 65 urtetik aurrera, berriz, kategoria bakarra.
- **Ikasketa-maila.** Belaunaldien arabera titulu ezberdinak daudenez, eta horrek dakarren konplexutasuna sinplifikatze aldera, batzuen eta besteen artean dauden aldeak talde be-

2 Analisian, datu baliodun guztiekiko portzentajeak erabiliko dira. Kategoria horren barruan, ez dira kontuan hartuko "Ez daki / Ez du erantzun" kategoriakoak. Beraz, kasu horietan 6.296 norbanako baino gutxixeago izan daitezke. Oro har, kasu kopuru txikia duen kategoria da eta, nahasketak saihesteko eta emaitzak errazago irakurri eta interpretatzeko, ezabatu egiten da.

rean batzeko zailtasunak egon arren, lau talde bereizi dira, etiketa sinpleak erabilita analisia errazteko:

- Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntza: talde horretan sartzen dira gehienez lehen hezkuntza dutenak zein ikasketarik ez dutenak.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa.
- Unibertsitate mailako ikasketak.

◆ **Euskara jakitea.** Horrela bereizten du biztanleria: euskaraz ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutenak (biztanleria euskal hiztuna) eta euskaraz hitz egiten ez dutenak (erdaldunak).

1 Grafikoa.

**Laginaren-ezaugarriak, administrazio-eremuaren (A), sexuaren (B), udalerriaren dimentsioaren (C), adinaren (D), ikasketa-mailaren (E) eta euskararen ezagutzaren (F) arabera**



**D. Grafikoa. Pertsonak, adinaren arabera (% )**




**E. Pertsonak, amaitutako ikasketa-mailaren arabera (% )**




**F. Pertsonak, euskararen ezagutzaren arabera (% )**




Gainera, aldagai horietako batzuk gurutzatzeak lagina osatzen duten profilak hobeto ulertzen laguntzen du. Hain zuzen ere, datuak hobeto interpretatzeko, beharrezkoa da adinak ikasketa-mailarekin eta euskara jakitearekin duen erlazioa kontuan izatea.

Ikusten den bezala, **ikasketa gutxien** dituzten pertsonak dira gazteenak (adinagatik, oraindik ez dituztelako ikasketak amaitu) eta adinez nagusienak direnak (belaunaldi-efektuagatik, goragoko mailetako hezkuntza-mailak haien gaztaroa eta eskolaratze-garaia baino beranduago hedatu baitziren).

2. Grafikoa.
**Ikasketa-maila, adinaren arabera (%)**




**Euskararen ezagutzari** dagokionez, adinaren araberako eten bat ikusten da, nabarmen: zenbat eta gazteagoa, orduan eta euskararen ezagutza-maila handiagoa.

3. Grafikoa.
**Euskararen ezagutza, adinaren arabera (%)**



# 2. KULTURAREKIKO JARRERA OROKORRAK

## 2.1 Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren autopertzepzioa

1etik 10erako eskala batean, zeinean pertsonei kultura-jardueretan parte hartzeak berentzat duen garrantzia puntuatzea eskatzen den, **7,37 puntuan** dago batez besteko balorazioa. Horrenbestez, **balio handia** da, eta parte-hartze kulturalak errekonozimendu soziala baduela erakusten digu horrek.

4. Grafikoa.
**Kultura-jardueretan parte hartzearen garrantziaren batez besteko balorazioa**




5. Grafikoa.
**Pertsonak, parte-hartze kulturalaren garrantziari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)**




Parte-hartzeari buruzko iritzia oso homogeneoa den arren, badaude alde batzuk ikasketa-mailari, euskararen ezagutzari eta sexuari erreparatuta (Ikus erantsitako 1. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenek garrantzi handiagoa ematen diote parte-hartze kulturalari (7,77), bigarren hezkuntza ondoko tituluak dituztenek (Batxilergoa, 7,29; Lanbide Heziketa, 7,25) edo derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulua dutenek baino (DBH edo baliokideak, 7,02; ikasketak amaitu gabe, 7,09).
- Euskal hiztunek erdaldunek baino ia puntu erdi gehiagoko garrantzia ematen diote (7,70 eta 7,23, hurrenez hurren).
- Emakumeen balorazioak (7,70) ia zazpi hamarrenetan gainditzen du gizonen batez bestekoa (7,03).

Oso txikiak dira lurraldeen arteko aldea; nolanahi ere, Ipar Euskal Herrian garrantzi handixeagoa ematen zaio parte-hartze kulturalari (7,5), Nafarroako Foru Komunitatean (7,39) eta EAEn (7,34) baino.

## 2.2 Kultura-informazioko maila

1etik 4rako balorazio-eskala batean, zeinean 1 ezer den eta 4 asko den, **2,79an** kokatzen du jendeak bere informazio-maila bere inguruneko kultura-eskaintzari buruz. Hau da, **nahiko informatuta** daudela uste dute.

6. Grafikoa.
**Kultura-informazioko mailaren auto-balorazioa**




7. Grafikoa.
**Pertsonak, duten kultura-informazioko mailari buruz egiten duten balorazioaren arabera (%)**



Alde txikiak ikusten dira ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 2. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Hobeto informatuta daudela uste dute unibertsitate-mailako ikasketak dituzten biztanleek (2,96) –ia puntu erdiko aldearekin–, derrigorrezko bigarren hezkuntza lortu ez zutenekin alderatuta (2,52).
- Antzerako aldea dago 55-64 urte bitarteko helduen (2,97) eta 15-24 urte bitarteko gazteen (2,54) artean, azken horiek uste baitute ez daudela horren ondo informatuta.
- Aldeak oso txikiak diren arren, ikusten da erlazio lineala dagoela udalerriaren tamainaren eta kultura-informazioko mailaren artean: zenbat eta txikiagoa izan biztanle-kopurua, orduan eta handiagoa da informazio-pertzepzioa (hiriburuen kasuan, 2,72 puntuan dago batez bestekoa; 10.000 biztanle baino gutxiagoko herrien kasuan, berriz, 2,85 puntuan).



Administrazio-eremuaren arabera, oso txikiak dira aldeak. Ipar Euskal Herria dago aurrena (2,89), Nafarroako Foru Komunitatea ondoren (2,83) eta EAE azkenik (2,76).

## 2.3 Kultura, gizarte-loturen sortzaile

Biztanleriaren pertzepzioaren arabera, **gizarte-loturak sortzeko gaitasun aitortua** du kulturak.

8. Grafikoa.
**Pertsonak, kultura-jarduerari esker gizarte-loturak sortu dituzten pertzepzioaren arabera (%)**




Ipar Euskal Herriaren kasua albo batera utzita (nabarmen gailentzen da), gurutzaketa-kategoria guztietan dago % 19,6 inguruko proportzio egonkor bat, adierazten duena kultura-jarduerak maiz

eman diola beste modu batera ezagutuko ez lituzkeen pertsonekin harremanak izateko aukera. Horrela, hori batzuetan bakarrik gertatu zaiela adierazten duten kategoriekiko ikusten da batez ere aldea (Ikus erantsitako 3. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Zentzu horretan, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen kasuan, % 69,7koa da kultura-jarduerari esker, maiz edo batzuetan, beste pertsona batzuekin harremana izan dutela adierazten dutenen portzentajea; zifra hori % 46,4koa da, berriz, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituztenen kasuan.
- Adinari dagokionez, portzentaje hori % 73,4koa da 15 eta 24 urte bitartekoen kasuan, eta jaitsi egiten da adinak aurrera egin ahala, 65 urtetik gorako pertsonen kasuan, % 51,8koa izatera iritsi arte.



Ipar Euskal Herrian, % 77koa da kulturak gizarte-loturak sortzeko gaitasuna duela aitortzen duten pertsonen proportzioa; Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn berriz, txikiagoa da proportzio hori (% 63koa eta % 60,5ekoa, hurrenez hurren).

## 2.4 Parte-hartze kulturalerako motibazioak

Premia desberdinak betetzeak bideratzen du motibazioa kultura-jarduerarekiko. Gainera, premia desberdinak egokiagoak izan daitezke premia jakin batzuk edo beste batzuk gogobetetzeko.

Normalean lau motibazio mota nabarmentzen dira, eta kulturak erantzuteko gaitasuna duen premien multzoa biltzen dute:

- **Motibazio sinbolikoa:** pertsona gisa aberasteko premiarekin dago lotuta, autoerrealizatzeko premiarekin.
- **Motibazio kulturala:** jakintza gehitzeko premiarekin dauka zerikusia espezifikoki.
- **Motibazio soziala:** jarduera kultural batean parte hartzeak beste jende batekin erlazionatzeko eta esperientzia partekatzeko premiarekin izan dezake zerikusia.
- **Motibazio emozionala:** azken batean, deskonektatzeko, errutinatik ateratzeko eta sentsazio berriak esperimentatzeko premiak bereizitako laugarren motibazioa definituko du.

### *Kultura-praktiketarako motibazioa*

**Motibazio emozionala da** kultura-jardueretara joateko eta kontsumo pasiboko jarduerak egiteko **ohikoena** (% 32,1), nahiz eta oso hurbil dauden motibazio **kulturala** eta **sinbolikoa** ere, % 26 inguruko portzentajearekin biak. Motibazio soziala bakarrik nabarmentzen da guztien atzetik.

9. Grafikoa.
**Kultura praktiketarako motibazioak (%)**




Alde interesgarriak daude ikasketa-mailaren arabera, eta txikiagoak adinaren arabera eta udalerriaren tamainaren kategoria batzuen arabera (Ikus erantsitako 4. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-mailaren arabera, alderantzizko erlazio bat hautematen da motibazio emozionalak eta sinbolikoak kategoria ezberdinetan duten pisuaren artean. Emozionalak garrantzia galtzen du ikasketa-mailak gora egin ahala; motibazio sinbolikoa handitu egiten da, aldiz, ikasketa-mailak gora egin ahala (hala eta guztiz ere, bigarren motibazioa da unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen kategorian).
- Adinaren arabera, aipagarria da 25-34 urtetik aurrera handitu egiten dela motibazio kulturala.
- Nabarmentzekoa da motibazio sinbolikoak pisu handia duela 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan (hiriburuak kontuan izan gabe), eta emozionalak, berriz, 25.000 eta 50.000 biztanle bitarteko hirietan.

### *Amateur mailako praktiketarako motibazioa*

Amateur mailako praktiken kasuan, antzerako portzentajeekin nabarmentzen dira **motibazio emozionalak** (% 36) eta **sinbolikoak** (% 30,4). Horrela, zentzuzkoa dirudi jardueren ezaugarriei egoztea dauden aldeak (edo horietako asko):

- Prestakuntza motibazio kulturalarekin edota sinbolikoarekin lotuta egongo litzateke.
- Amateur mailako praktika, berriz, motibazio sozialarekin edota emozionalarekin.

10. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)**




Oro har, nahiz eta ez duten ikusitako patroi orokorra aldatzen, hautematen dira alde zehatz batzuk sexuari, adinari eta euskararen ezagutzari dagozkien aldagaien kategoria batzuetan (Ikus erantsitako 5. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Emakumeen artean, emozionala da motibazio nagusia (% 40,6); gizonen artean, berriz, sinbolikoa (% 35,3).
- Motibazio soziala –oihartzun txikiagoa duen arren– gehiago dute 65 urtetik gorako pertsonek (% 33,1) eta 35 eta 44 urte bitartekoek (% 33), bai eta derrigorrezko hezkuntzako ikasketa-mailak dituztenek ere (DBH eta baliokideak).
- Sinbolikoa gailentzen da 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan (hiriburuak kontuan izan gabe).
- Motibazio kulturala handixeagoa da euskal hiztunen artean (% 16,9ko portzentajearekin; erdaldunen artean, berriz, % 11,6koa da), emozionalaren kalterako, azken hori handiagoa baita erdaldunen artean (% 38,4 eta % 31,4).

## *Praktika digitaletarako motibazioa*

Azkenik, alor digitaleko jarduerari dagokionez, argi eta garbi gailentzen da **motibazio kulturala**, % 41,3ko portzentajearekin.

11. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiketarako motibazioak (%)**




Hala ere, alde nabarmenak daude, adinarekin eta ikasketa-mailarekin lotuta (Ikus erantsitako 6. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- 15-24 adin-tartean, alde handiarekin nabarmentzen da motibazio soziala (% 41,1), beste guztien gainetik gailentzen dena. Gauza bera gertatzen da 25-34 adin-tartean ere, baina gehiago banatuta ageri da pisua. Horrek esan nahi du erabat eraldatzen ari dela parte-hartze kulturala, esparru digitalerantz: bestelako motibazio bat dago, norbanakoak gogobete ditzakeen behar kulturalen bestelako pertzepzio bat.

- Garrantzi txikiagoarekin bada ere, ikusten da motibazio sinbolikoak pisu handiagoa duela 65 urtetik gorako pertsonen kasuan (% 28,5) gazteen artean baino (% 16,6); motibazio sinbolikoak, aldiz, alderantzizko joera du, eta pisu txikiagoa du 55 urtetik gorakoen artean, 25 eta 54 urte bitarteko pertsonen artean baino.

- Azkenik, eta motibazio kulturala gailentzen den arren zeharkakotasunez, ikusten dira aldeak ere, ikasketa-mailaren arabera. Motibazio kulturala nabariagoa da unibertsitate-mailako ikasketak amaituta dituztenen artean (% 47), derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez zituztenen edo ikasketa horiek bakarrik amaitu zituztenen artean baino (% 32,6 eta % 34,5, hurrenez hurren).

## *Alderaketarako begirada*

Parte hartzeko modu bakoitzak motibazioen patroi desberdina du:

- **Kultura-praktiketan**, motibazioen pisuaren banaketa homogeneoagoa dago, nahiz eta badagoen beste hirurengandik dezente aldentzen den bat (motibazio soziala).

- **Praktika digitalen** kasuan, bestalde, nabarmen gailentzen da motibazio kulturala (kasuen % 41), eta emozionala, aldiz, **amateur mailako praktiketan** nabarmentzen da (kasuen % 36).

12. Grafikoa.

**Parte-hartze kulturalerako motibazioa praktika motaren arabera (%)**




Motibazio soziala oso eskasa da Ipar Euskal Herrian: % 5,9koa, hain zuzen ere; Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn, berriz, % 14,8koa eta % 17,5ekoa, hurrenez hurren.

Patroi berari jarraitzen dio motibazio emozionalak ere: presentzia txikia du Ipar Euskal Herrian, eta bikoitza baino handiagoa Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn, non motibazio nagusia baiten.

Motibazio kulturalak eta sinbolikoak, ordea, nabarmen gailentzen dira Ipar Euskal Herrian (% 40 inguruko portzentajearekin biak), eta motibazio nagusitik oso urruti geratzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen eta EAEren kasuan.

Alderaketaren ikuspegitik, interesgarria da aldeak administrazio-eremuen arabera aztertzea ere:

# 3. KULTURA-PRAKTIKAK

## 3.1 Praktika eszenikoak eta musikalak

### 3.1.1 *Antzerkira joatea*

Azkeneko 12 hilabeteetan, Euskal Herriko biztanleriaren **% 46,9** joan da antzerkira, behin gutxienez.

13. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan antzerkira joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Aldeak aztertuz gero, eta eragin ezberdinarekin bada ere, ikasketa-maila, euskara jakitea, adina eta sexua nabarmentzen dira (Ikus erantsitako 7. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-maila handiagoko pertsonak ikasketa-maila txikia duten pertsonak halako bitan joaten dira antzerkira (% 58 eta % 26, hurrenez hurren).
- Batez ere 55 urtetik gorakoen artean, jaitsi egiten da antzerkirako asistentzia: 25 eta 34 urte bitartekoen artean (% 56) dago antzerkira joaten direnen proportziorik handiena, eta 65 urtetik gorakoen artean, berriz, txikiena (% 34).
- Biztanleria euskal hiztunaren % 55 joaten da antzerkira; portzentaje hori erdaldunena baino 12 puntu handiagoa da.
- Gizonen eta emakumeen arteko aldea oso txikia da: kasuen % 50ean joaten dira emakumeak, eta % 44an gizonak.

Antzerkirako asistentziaren mailak oso antzerakoak dira Ipar Euskal Herrian eta EAEn (% 45,5), eta zertxobait handiagoa Nafarroako Foru Komunitatean (% 51,5).

### 3.1.2 *Dantza-ikuskizunetara joatea*

Guztira, biztanleriaren **% 32,4** joan da azkeneko urtean dantza-ikuskizunen bat ikustera.

14. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan dantzara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Dantzaren kasuan, aldeak ikusten dira ikasketa-mailaren, udalerriaren tamainaren eta sexuaren arabera (Ikus erantsitako 8. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Aldeak antzerkiaren kasuan baino txikiagoak diren arren, derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu ez zutenak baino neurri handiagoan joaten dira dantza-ikuskizunetara unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonak (% 28 eta % 39).
- Udalerriaren tamainari dagokionez, zenbat eta txikiagoa den udalerria, orduan eta handiagoa da dantza-ikuskizunetara joateko joera. 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, % 38koa da dantza-ikuskizunetara joaten direnen proportzioa; hiriburuetan, berriz, % 25,5ekoa.
- Kasuen % 35,5ean joaten dira dantza-ikuskizunetara emakumeak, gizonezkoak baino 6 puntu gehiagoko proportzioarekin.
- Adinari dagokionez, ikusten den bakarra da jaitsi egiten dela asistentzia 65 urtetik gorakoen artean.

Ipar Euskal Herrian gehiago dira dantza-ikuskizunetara joaten direnak (% 50). EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoa 20 puntu gutxiagorekin ageri dira (% 30).

### 3.1.3 *Kontzertuetara joatea*

Biztanleen **% 63,2** joan da gutxienez kontzertu batera azkeneko hamabi hilabeteetan. Horien ia erdia joan da lau kontzertu baino gehiagotara denbora-aldi horretan.

15. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan kontzertuetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Ikasketa-mailak, adinak eta euskararen ezagutzak zerikusi handia dute kontzertuetarako asistentzian dauden aldeetan (Ikus erantsitako 9. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen taldean, kontzertuetara joandakoen portzentajea derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu gabe dutenenaren bikoitza da (% 75 eta % 36).
- Kontzertuetara joaten direnen portzentajea murriztu egiten da adina handitu ahala. 15-24 urte bitarteko gazteen taldean, % 86ra iristen da portzentajea; 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 40,5ekoa da portzentaje hori. 35 eta 54 urte bitartekoen adin-taldean % 68 inguruan mantentzen da.
- Euskal hiztunen artean, % 75,5 joan da kontzerturen batera, eta erdaldunen % 58.



Kontzertuetara joan direnen portzentajea ia berdina da Ipar Euskal Herrian, Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn (% 62 eta % 65 artean).

Maiztasunean bakarrik ikusten dira aldeak: Ipar Euskal Herrian, % 35 joan da 4 kontzertu baino gehiagotara; EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, % 28 inguru.

### 3.1.4 *Grabatutako musika entzuteko maiztasuna*

Biztanleriaren **% 77,4k** entzuten du maiztasun handiz (egunero edo aster0) grabatutako musika.

16. Grafikoa.
**Pertsonak, grabatutako musika entzuten duten maiztasunaren arabera (%)**




Adinak ezartzen ditu alderik handienak, nahiz eta badauden aldeak ikasketa-mailaren eta euskararen ezagutzaren arabera ere (Ikus erantsitako 10. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- 15 eta 24 urte bitartekoen biztanle gehienek entzuten dute musika egunero (% 83). Portzentaje hori modu progresiboan jaisten da, 65 urtetik gorakoen taldera iritsi arte (% 39,5).
- Biztanleria euskal hiztunaren % 65ek entzuten du grabatutako musika egunero, eta erdaldunen % 55ek.
- Unibertsitate-mailako eta derrigorrezko bigarren hezkuntza ondoko ikasketak dituztenen % 60k entzuten du grabatutako musika egunero; portzentaje hori % 44 eta % 50 artekoa da derrigorrezko bigarren hezkuntza dutenen artean.



Ipar Euskal Herrian, handiagoa da grabatutako musika egunero entzuten dutenen portzentajea (% 66,6), EAEkoarekin (% 57,7) eta Nafarroako Foru Komunitatekoarekin (% 54,4) alderatuta.

### 3.1.5 *Zuzeneko beste ikuskizun batzuk*

Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez zuzeneko ikuskizun batera joan direla adierazi duten pertsonei genero zehatzetako ikuskizunetara joan izan diren ere galdetu zitzaien.

Zentzu horretan, musikalak (% 37), haur-antzerkia (% 28,5), magia-ikuskizunak (% 22,9) eta, horien antzerako portzentajearekin, bertsolaritzako emanaldiak (% 20,8) nabarmentzen dira. Zirkuak eta operak, bestalde, % 12,9 eta % 10,5eko portzentajeak dituzte, hurrenez hurren.

17. Grafikoa.
**Zuzeneko arteek duten oihartzunaren rankinga, biztanleria-talde ezberdinen arabera (%)**




11. (Musikalak), 12. (Haur-antzerkia, 13. (Magia-ikuskizunak), 14. (Bertsolariak), 15. (Zirkua) eta 16. (Opera) eranskinetako Grafikoetan kontsulta daitezke aldeak, gurutzaketa-aldagaietatik abiatuta. Oro har begiratuta, nabarmentzekoa da:

- Operan 55 urteko edo gehiagoko eta unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonen proportzio handixeagoa dagoela, bai eta 25.000 biztanle baino gehiagoko hirietan bizi diren bizilagunena.
- Zirkoaren, magia-ikuskizunen eta haur-antzerkiaren kasuan, 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen proportzioa nabarmentzen da.

## 3.2 Ikus-entzunezko praktikak

### 3.2.1 *Zinemara joatea*

Biztanleen **% 70,2** joan da gutxienez behin zinemara, azkeneko hamabi hilabeteetan. % 44,2, berriz, lau aldiz baino gehiagotan joan da denbora-aldi horretan.

18. Grafikoa.

**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan zinemara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Zinemara joateari dagokionez, alde nabarmenak daude adinaren eta ikasketa-mailaren arabera, baita euskararen ezagutzaren arabera ere, nahiz eta kasu horretan txikiagoak diren aldeak (Ikus erantsitako 17. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, % 82koa da zinemara joaten direnen portzentajea. Derrigorrezko bigarren hezkuntza egin ez dutenen artean, berriz, % 37,5ekoa.
- 15 eta 24 urte bitartekoen taldean, ia guztiak joaten dira zinemara (% 92). Portzentaje hori jaitsi egiten da, eta jauzi nabarmena gertatzen da, 65 urtetik gorakoen taldera jotzen badugu (% 44).
- Biztanleria euskal hiztunaren eta erdaldunaren arteko aldea 10 puntukoa da (% 77 eta % 67, hurrenez hurren).



Zinemara lau aldiz baino gehiagotan joan direnen proportzioan bakarrik hautematen da aldea: Ipar Euskal Herrian, % 54 dira; EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean baino 9 eta 12 puntu artean handiagoa da portzentaje hori.

## *Azpitituluen lehenespena*

Biztanleen **% 30**ek nahiago du filmak jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin ikustea.

19. Grafikoa.

**Pertsonak, azpi-tituludun filmak edo bikoiztutakoak nahiago izatearen arabera (%)**



Azpitituludun filmen aldekoen portzentajea aldatu egiten da ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren, adinaren eta, aurreko aldagaien kasuan baino neurri txikiagoan bada ere, udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 18. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | **EUSKARA JAKITEA** | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Gazteen (15-34 urte) % 44 inguruk ditu nahiago azpitituludun filmak. Portzentaje hori modu progresiboan jaisten da, 65 urtetik gorakoen taldera iritsi arte (% 17,5).
- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, % 42,3k nahiago ditu azpitituludun filmak bikoiztutakoak baino; lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen edo ikasketarik gabekoen kasuan, berriz, % 12,4koa da portzentaje hori.
- Euskal hiztunek neurri handiagoan dituzte nahiago azpitituluak, erdaldunekin alderatuta (% 37,2 eta % 27,3).
- Udalerriaren tamainari dagokion aldagaiari erreparatuz gero, handixeagoa da azpitituluen aldeko hautua hiriburuetan eta 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan (% 33,7 eta % 32,6), 25.000 eta 10.000 biztanle baino gutxiagokoetan baino (% 27,5ekoa da portzentajea kasu bietan).



Ipar Euskal Herrian inkestari erantzun diotenen % 48,9k nahiago du filmak azpitituluekin ikustea bikoiztuta baino; zifra hori Nafarroako Foru Komunitatekoaren (% 25,4) eta EAEkoaren (% 29,2) ia bikoitza da.

### 3.2.2 ***Bideojokoak***

Biztanleen **% 20,8** jolasten da noizean behin edo maiztasun handiagoz bideojokoetan. Jolasten direnen artean, erdia baino gehiago jolasten da maiztasun handiz (astean hainbat aldiz edo egunero).

20. Grafikoa.
**Pertsonak, bideojokoak erabiltzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**




Sexuaren eta adinaren arabera, alde handiak daude bideojokoen erabilerari dagokionez (Ikus erantsitako 19. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | **SEXUA** | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Gehien jolasten direnen artean (gizonak eta 15-34 urte bitarteko gazteak), handia da intentsitatea (“noizean behin” jolasten dienena baino handiagoa da “egunero” jolasten direnen portzentajea).
- 15-25 urte bitartekoen taldeko pertsonen % 57 jolasten da, 25-34 urte bitartekoen % 33k, eta beste adin-taldeen kasuan, ez dago % 20ko portzentajea gainditzen duen talderik. Hala ere, 65 urtetik gorakoen % 10 jolasten da egunero edo noizean behin (horien erdiak egunero).
- Sexuari dagokionez, gizonak kasuen % 16,9an jolasten da egunero, eta % 10,7tan noizean behin; emakumeen kasuan, % 6,6 eta % 7,4koak dira portzentaje horiek.

Ipar Euskal Herrian, Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn, bideojokoen erabilera- eta maiztasun-portzentajeak batez bestekoaren ia berdinak dira.

## 3.2.3 *Komunikabideak*

Biztanleen **% 80,3k** dio egunero ikusten duela telebista, eta **% 66,1ek**, berriz, irratia egunero entzuten duela adierazten du.

21. Grafikoa.
**Pertsonak, irratia eta telebista erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)**




Bitarteko digitalean, ez dira batere praktika ohikoak telebista eta irratia, duten presentzia orokorrarekin alderatuta.

22. Grafikoa.

**Pertsonak, irratia eta telebista modu digitalean erabiltzen duten maiztasunaren arabera (%)**




## *Telebistaren erabilera-mailak*

Egunero edo astero ikustearen artean daude alderik nabarmenenak eta, ikasketen eta euskararen ezagutzaren araberako alde txiki batzuk hautematen diren arren, aldeak adinarekin lotuta daude batez ere (Ikus erantsitako 20. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- 15 eta 24 urte bitartekoa da telebista egunero gutxien ikusten duen adin-segmentua (% 57,5ek); 65 urtetik gorakoei dagokienez, berriz, ia guztiek ikusten dute egunero telebista (% 93,7k). % 12,5ekoa da telebista inoiz ikusten ez duten 15 eta 24 urte bitarteko gazteen portzentajea; 65 urtetik gorakoen kasuan, berriz, % 2,5ekoa da portzentaje hori.
- Euskal hiztunen artean, telebista egunero ikusten dutenen portzentajea % 73,9koa da, eta % 83koa erdaldunen artean.
- Ikasketa-mailaren arabera, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 75ek ikusten du telebista egunero, eta derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu ez zutenen % 88k.



10 puntutik gorako aldea dago Ipar Euskal Herriaren (% 70,8k ikusten du egunero telebista) eta EAEren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean (% 81 ingurukoa da portzentaje hori azkeneko bi eremuetan).

## *Irratiaren erabilera-mailak*

Adinaren aldagaian ikusten dira alderik handienak; txikiak diren arren, badaude aldeak ikasketa-mailaren arabera ere (Ikus erantsitako 21. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- % 10 gehiago dira irratia entzuten duten Unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez zituztenekin alderatuta.
- Adinari erreparatuta, antzerakoak dira 35 urtetik gorako adin-tarte guztien datuak (% 80 eta % 90 artekoak). 15 eta 24 urte bitartekoen adin-tartean, aldiz, % 60koa da irratia entzuten dutenen portzentajea, eta % 80koa baino txikixeagoa 25 eta 34 urte bitartekoena.



Bospasei puntuko alde txikia ikusten da Ipar Euskal Herriko (% 86) erabileraren eta EAEkoaren (% 81) eta Nafarroako Foru Komunitatekoaren artean (% 80).

## 3.3 Irakurtzea

### 3.3.1 *Liburuak*

Biztanleen **% 74,9k** irakurri du gutxienez liburu bat (entretenimendu modura) erreferentziazko azkeneko 12 hilabeteetan. % 46k irakurri ditu lau liburu baino gehiago denbora-aldi berean.

23. Grafikoa.

**Pertsonak, azkeneko hamabi hilabeteetan irakurri duten liburu kopuruaren arabera (%)**




Ikasketa-mailaren araberakoak dira irakurtzearen eta ez irakurtzearen artean dauden alderik garrantzitsuenak, baina adinaren, sexuaren eta udalerriaren tamainaren arabera ere ikusten dira aldeak intentsitateari dagokionez (Ikus erantsitako 22. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 85ek irakurri du liburu bat gutxienez (entretenimendu modura) azkeneko 12 hilabeteetan. Portzentaje hori % 48koa da lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen eta ikasketarik ez dutenen artean.
- Gizonen eta emakumeen artean, aldea nabarmena da irakurketa-intentsitateari dagokionez: emakumeen % 52,8k irakurri ditu lau liburu baino gehiago erreferentziazko denbora-aldian, eta gizonen % 39,1ek.
- Adinaren arabera, 65 urtetik gorakoen taldean daude irakurketa-mailarik txikienak; % 35,5ek ez du batere libururik irakurri azkeneko 12 hilabeteetan. Portzentaje hori beste adin-tarte batzuetan baino 10-15 puntu handiagoa da.

- 45 urtetik 64 urtera bitarteko pertsona helduek intentsitate handiagoz irakurtzen dute adin-talde gazteek baino: % 54 inguruk irakurri ditu lau liburu baino gehiago; aurreko adin-tarteetan, aldiz, % 41-43k.



Ipar Euskal Herrian, % 82koa da gutxienez liburu bat irakurri dutenen portzentajea; EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, % 74koa. Hala ere, intentsitatean dago alderik handiena: Ipar Euskal Herrian, % 64,5ek irakurri ditu lau liburu baino gehiago; beste bi eremuetan, aldiz, portzentaje horrek ez du % 44koa gainditzen.

## 3.3.2 *Egunkariak eta aldizkariak*

Egunkariek presentzia handia dute biztanlerian: **% 75ek** dio egunero edo astero irakurtzen dituela egunkariak. Aldizkariek presentzia txikiagoa dute (**% 49**), eta aldatu egiten da maiztasun-patroia; asteroko maiztasuna da ohikoena (% 26,5), edo hilerokoa (% 16,3).

24. Grafikoa.
**Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**




Euskarri digitalen bitartez egiten da egunkarien irakurketaren zati handi bat; fenomeno hori aldizkarien kasuan ere agertzen, baina askoz neurri txikiagoan.

25. Grafikoa.
**Pertsonak, aldizkariak eta egunkariak euskarri digitalean irakurtzen dituzten maiztasunaren arabera (%)**



## *Egunkarien irakurketa-mailak*

Ikasketa-mailarekin eta adinarekin lotutakoak dira alderik garrantzitsuenak, baina sexuagatiko aldeak ere ikusten dira (Ikus erantsitako 23. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonen % 82,5ek egunero edo astero irakurtzen dute egunkaria; portzentaje hori % 62koa da bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituztenen kasuan.
- Adinari dagokionez:
  - 55-65 urte bitartekoekin alderatuta, 65 urtetik gorakoen artean jaitsira txiki bat dagoela ikusten den arren, egunkarien irakurketa handituz doa adinak aurrera egin ahala. 55 eta 64 urte bitartekoena da portzentajerik handiena, % 84,8koa.
  - Jauzi handia dago 15 eta 24 urte bitartekoen (% 51koa da egunero edo astero irakurtzen dutenen portzentajea) eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean (% 72,3).
- Gizonen artean, % 79,6koa da egunkarien irakurketa-portzentajea; emakumeen artean, berriz, % 72,8koa. Hala ere, eguneroko irakurketa bakarrik kontuan hartuz gero, handiagoa da aldea: % 47,5 eta % 57,1.

Ipar Euskal Herrian handiagoa da egunkaria inoiz edo ia inoiz ere irakurtzen ez dutenen portzentajea (% 40,7), EAEkoarekin (% 22,7) eta Nafarroako Foru Komunitatekoarekin (% 19,8) alderatuta.

## *Aldizkarien irakurketa-mailak*

Aldizkariek egunkariek baino intzidentzia txikiagoa dute, eta txikiagoak dira aldagaien ondoriozko aldeak ere. Hala ere, badaude bereizitasun batzuk ikasketa-mailaren eta adinaren arabera (Ikus erantsitako 24. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten biztanleen % 37,5ek irakurri du noizbait aldizkari bat; portzentaje hori txikiagoa da (% 26) derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu ez dutenen artean.
- Adinaren arabera ere ikusten da alderen bat –txikia den arren–; adin handiagoko pertsonek gazteek baino gehiago irakurtzen dituzte aldizkariak (14 puntuko aldea, guztira).

Nabarmen handiagoa da aldizkariak irakurtzen dituztenen portzentajea Ipar Euskal Herrian (% 45), EAEkoarekin (% 33) eta Nafarroako Foru Komunitatekoarekin alderatuta (% 27).

### 3.3.3 *Liburutegira joatea*

Biztanleen **% 42** joan da liburutegira behin gutxienez, erreferentziazko urtean. % 30,3, berriz, lautan baino gehiagotan joan da.

26. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Liburutegira joateari dagokionez, ikasketa-mailaren (amaitutako ikasketak), adinaren, euskararen ezagutzaren eta, neurri txikiagoan bada ere, sexuaren araberako aldeak ikusten dira (Ikus erantsitako 25. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak (% 55) ikasketa-maila txikiagoko pertsonak (% 24) baino gehiago joaten dira liburutegira.
- Adinak gora egin ahala, txikiagoa da liburutegira joaten direnen portzentajea. 65 urtetik gorakoak dira liburutegira gutxien joaten direnak, eta % 74,8 dira azkeneko 12 hilabeteetan inoiz joan ez direnak. Portzentaje hori % 28,6koa da 15 eta 24 urte bitartekoen artean.
- Euskal hiztunen % 54 joaten dira liburutegira, eta erdaldunen % 37.
- Sexuen arabera, emakumeen aldeko alde txiki bat detektatzen da. Emakumeen artean, % 45 joan dira liburutegira; zifra hori gizonezkoena baino 6 puntu txikiagoa da.



Lurralde guztietan antzerako portzentajeak daudela ikusten da, % 42ko batez bestekotik gertu.

### *Liburutegietako kultura-jarduerak*

Gutxienez behin liburutegira joan direnak erreferentziatzat hartuta, **% 28,7** maiz edo batzuetan joan da kultura-jardueraren bat tarteko (biztanleria osoaren **% 12**).

**27. Grafikoa.**

**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietarako kultura-jardueretara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




* Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan, liburutegira gutxienez behin joan diren pertsonak

Liburutegietako kultura-jardueretara joateari dagokionez, badaude aldeak ikasketa-mailaren, adinaren eta, neurri txikiagoan, sexuaren arabera (Ikus erantsitako 26. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, % 32,7koa da liburutegira joaten direnen proportzioa; lehen hezkuntzak ikasketak dituztenen edo ikasketarik ez dutenen kasuan, % 20koa da portzentajea.
- Adinari dagokionez, liburutegirako asistentzia handiagoa den arren gazteen artean adinekoen artean baino, liburutegietako kultura-jardueretarako asistentziaren kasuan, aurkakoa da joera: 65 urtetik gorakoak dira liburutegira kultura-jardueretara gehien joaten direnak (% 42,6), eta 15 eta 24 urte bitartekoak, berriz, gutxien joaten direnak (% 17,8).
- Emakumeak gizonak baino proportzio handixeagoan joaten dira (% 30,8 eta % 26,3).



Liburutegietako kultura-jardueretarako asistentziari dagokionez, ez da ia batere alderik ikusten Ipar Euskal Herriko (% 31,7), Nafarroako Foru Komunitateko (% 29,1) eta EAEko (% 28,2) datuen artean.

## 3.4 Erakusketetarako bisitak

### 3.4.1 *Museoetarako asistentzia*

Biztanleen **% 49k** bisitatu du museoren bat azkeneko 12 hilabeteetan.

28. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Museoetarako asistentziari dagokionez, ikasketa-mailaren araberakoak dira ikusten diren alderik handienak, nahiz eta, neurri txikiagoan bada ere, euskararen ezagutzaren eta udalerriaren arabera eta, adinari dagokionez, 65 urtetik gorakoen kategoriarako aldeak ere badauden (Ikus erantsitako 27. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Zenbat handiagoa izan ikasketa-maila, orduan eta handiagoa da museoetarako asistentzia ere; hala, ikasketa-maila txikieneko pertsonen % 21 joan da museoetara, eta unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 64.
- Segmentu euskal hiztunari dagokionez, % 55 joaten da museoetara; 9 puntuko aldea ateratzen dio erdaldunen segmentuari.
- Udalerriaren tamainari erreparatuz gero, 8 puntuko aldea dago hiriburuen eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien artean; % 53koa da museoetarako asistentzia hiriburuetan, modu progresiboan jaisten delarik portzentaje hori, eta % 45ekoa da udalerri txikietan.
- 65 urtetik gorakoen % 37 joaten da museoetara, gainerako adin-taldeetakoak baino gutxiago (%50-55 inguru).



Ipar Euskal Herrian eta EAEn, % 51 inguruan dago portzentaje hori, eta % 40an, berriz, Nafarroako Foru Komunitatean.

### 3.4.2 *Arte-galerietarako asistentzia*

Inkestari erantzun diotenen **% 19,8k** adierazi du azkeneko urtean arte-galeriaren bat bisitatu duela.

29. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabeteetan arte-galerietara joan diren maiztasunaren arabera (%)**




Kasu honetan ere, ikasketa-mailari dagozkio alderik garrantzitsuenak (Ikus erantsitako 28. grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean, % 28k bisitatu du arte-galeriaren bat azkeneko 12 hilabeteetan; portzentaje hori jaitsiz doa ikasketa-mailak behera egin ahala, % 8ra iritsi arte.



Ipar Euskal Herrian handiagoa da asistentzia, EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan baino (% 33 lehenengoaren kasuan, eta % 18 inguru beste bietan).

## 3.4.2 *Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua*

Batez ere **oporretan** (% 45) egiten dira museo eta galerietarako bisitak. Beste udalerri batzuetarako irteerak eta bisitak dira bigarren aukerarik gustukoena (% 25). Kasuen % 19an, udalerrian bertan egiten dira bisitak.

30. Grafikoa.
**Pertsonak, azkeneko 12 hilabetetan museoetara joan diren maiztasunaren arabera (%)**



Alde txikiak daude kontuan izan diren gurutzaketa-aldagaiengatik; adin eta udalerriaren tamaina jakin batzuetan ikus daitezkeen aldaketa txiki batzuk, besterik ez (Ikus erantsitako 29. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Oporraldietako bisitak ohikoagoak dira gazteen artean adinekoen artean baino, eta hiri txikietan bizi direnen artean tamaina handiagoko hirietan bizi direnen artean baino (hiriburuetan, zehazki, ohikoagoa da udalerriko bertako museoak edo galeriak bisitatzea).
- Oporraldia garai nagusi gisa ageri ez den aldagai bakarra 65 urtetik gorakoen adin-tartea da; kasu horretan, beste udalerri batzuetarako irteera eta bisitetan (% 36) edo udalerrian bertan (% 29,5) egiten dira bisitak.

## 3.5 Laburpen konparatiboa

Praktika jakin batzuk egiten diren maiztasunarekiko **zeharkako begirada** batek kultura-jardueren artean hiru bloke detektatzea ahalbidetzen du.

31. Grafikoa.
**Pertsonak, kultura-praktika desberdinak egiteko maiztasunaren arabera (%)**




*Oharra: Irakurketan irakurritako liburuen kopuruari buruzkoak dira datuak ("1etik 3ra bitarte" eta "4 baino gehiago") eta bideojokotan erabilera-maiztasunari buruzkoak ("Zenbait aldiz astean edo egunero" eta "Noizean behin")

Biztanleriaren guztizkoaren % 60aren gainetik honako hauek daude:

- Liburuen irakurketa (% 75)
- Zinemara joatea (% 70,2)
- Kontzertuetara joatea (% 63,2)

Ondoren, % 40tik % 50era bitarteko portzentajeekin, honako hauek ditugu:

- Museoetarako bisitak (% 48,9)
- Antzerkira joatea (% 70,2)
- Liburutegira joatea (% 42)

Nabarmentzekoak dira dantzara joatea (% 32,4), bideojokoetara jokatzea (% 20,8) eta arte-galerietarako bisitak (% 19,8) ere.

Gainera, praktika desberdinen **2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat egitea ahalbidetzen duten galderak barnean hartzen zituen inkestak.

32. Grafikoa.
**Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren bilakaera (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

Bilakaera positiboen artean, honako hauek nabarmentzen dira gehikuntza handienarekin:

- Kontzertuetara joatea (portzentajezko +23,4 puntu)
- Dantzara joatea (portzentajezko +22,9 puntu)
- Antzerkira joatea (portzentajezko +14,3 puntu)

Neurri txikiagoan, honako hauek ere gehitzen dira:

- Museoetara bertaratzea (portzentajezko +8,3 puntu)
- Bertso-saioetara bertaratzea (portzentajezko +8 puntu)
- Liburutegira bertaratzea (portzentajezko +5,4 puntu)
- Liburu-irakurketa (portzentajezko +4,1)
- Zinemara joatea (portzentajezko +3,7 puntu)

Atxikitzen diren praktiken artean daude grabatutako musika (eguneko entzunaldiaren % 57 inguru) eta arte-galerietara joatea

Jaitsieren artean egunkari eta aldizkarien irakurketa dugu, % 8tik % 9ra bitartean murriztuko delarik.

Oro har, praktika hauek kontuan izanda, parte-hartze kulturalaren **bilakaera global positiboa** egon da hamar lehenengoen artean.

# 4. ASOZIAZIONISMOA ETA AMATEUR MAILAKO PRAKTIKAK

## 4.1 Asoziazionismo kulturala

Biztanleriaren **% 16,7k** kultura-elkarteren batean parte hartzen du modu aktiboan.

33. Grafikoa.
**Kultura-elkarte batean edo gehiagotan parte hartzen duten pertsonak (%)**




Asoziazionismo kulturalean, batez ere ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren eta udalerriaren tamainaren arabera ikusten dira aldeak (30. Eranskineko Grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Ikasketa-mailak aldeak ezartzen ditu parte-hartze mailari dagokionez: unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen artean ematen da portzentajerik handiena (% 22,5), eta DBH (edo titulazio baliokidea) amaitu ez dutenen artean, berriz, txikiena (% 9).
- Euskal hiztunen portzentajea erdaldunena baino 8 puntu handiagoa da (% 22 eta % 14).
- Udalerriaren tamainari dagokionez, asoziazionismo-maila pixka bat handiagoa dago hiri handietan baino. Hiriburuetan, % 14koa da parte-hartzea; 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, % 12,5ekoa, eta 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, berriz, % 20koa.
- Adinaren arabera, ez da patroi linealik detektatzen: 25-34 eta 55-64 urte bitarteko adin-taldeetan ematen da parte-hartzerik handiena (% 15,6koa eta % 15,5ekoa, hurrenez hurren).



Nabarmentzekoa da Ipar Euskal Herriko parte-hartze maila (biztanleen % 25), EAEkoarekin eta Nafarroako Foru Komunitatekoarekin alderatuta (10 puntu gutxiagorekin).

**2008-2018 aldiko konparatiba historiko batean**, asoziazionismo kulturalean izandako 4 puntu eta erdiko igoera da nabarmentzekoa.

34. Grafikoak.
**Kultura-elkarteren batean parte hartzen duten pertsonen kopuruaren bilakaera (%)**




## 4.2 Amateur mailako praktika artistikoak

Biztanleriaren **% 34,3k** adierazten du gutxienez urtean behin parte hartzen duela sormenezko jardueretan, hala nola idazketan, margolaritzan, dantzan, artisautzan eta beste hainbatetan.

35. Grafikoa.
**Azken urtean amateur mailako kultura-praktikaren bat egin duten pertsonak**




Asoziazionismo kulturalean, batez ere ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren, Adinaren eta sexuaren araberako aldeak ikusten dira (Ikus erantsitako 31. grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 42k egiten dituzte amateur mailako praktikak; portzentaje hori % 18koa da derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez zituztenen kasuan.
- Adinari erreparatzen badiogu, hiru talde detektatuko ditugu: 35 urtez azpikoen %46k egiten dituzte sormen-jarduerak; portzentaje hori nabarmen jaisten du 35 eta 65 urte bitartekoen adin-tartean (% 31-34), eta % 24koa bakarrik da 65 urtetik gorakoen kasuan.
- Emakumeek gizonek baino amateur mailako arte-praktika gehiago egiten dute (% 37 eta % 31).
- Euskal hiztunek ere erdaldunek baino amateur mailako praktika gehiago egiten dute (% 40 eta % 32).



Ipar Euskal Herrikoa da amateur mailako praktika gehien burutzen dituena (% 42,6), Nafarroako Foru Erkidegoaren /¡(% 36,2) eta EAEren (% 32,6) aurretik.

**Zeharkako begirada** batetik ikusita, eskulanak eta artisautza dira amateur mailako praktika zabalduenak (% 31).

36. Grafikoa.
**Amateur mailako kultura-praktiken intzidentzia-rankinga (%)**




Tarte txikira dago praktika artistikoen hurrengo taldea:

- Dantza (% 24,5)
- Margolaritza edo marrazkigintza (% 23,6)
- Musika (% 20,7)
- Idazketa (% 19,3)
- Argazkigintza (% 18)

Jarduera horietarako, eta eskulanetarako, grafikoak aurki ditzakezue eranskinean, gurutzaketa-aldagaien emaitzekin batera (intzidentzia-ordenaren arabera: 32. eranskineko Grafikoa, eskulanei buruzkoa; 33. eranskineko Grafikoa, dantzari buruzkoa; 34. eranskineko Grafikoa, margolaritzari eta marrazkigintzari buruzkoa; 35. eranskineko Grafikoa, musikari buruzkoa; 36. eranskineko Grafikoa, idazkuntzari buruzkoa, eta 37. eranskineko Grafikoa, argazkigintzari buruzkoa).

Finean, gutxiago hedatutako praktiken bloke bat identifikatzen da, eta biztanleriaren % 2 - % 8an du horrek eragina:

- Kantua(% 7,9)
- Bideogintza(% 7,6)
- Antzerkia (% 6,1)

- Irakurketa-klubak (% 3,1)
- Beste ikus-entzunezko batzuk (% 2,5).
- Bertsolaritza (% 2,3)

**2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat eginez[3], gorakada nabarmena ikusten da margolaritza edo marrazkigintza ez diren arte plastikoak egiteari dagokionez, % 4,7tik % 10,6ra igaro baita[4]. Dantzaren kasuan ere igoera gertatu dela ikusten da; 2008ko % 5,3tik % 8,4ra.

Gainerako praktiketan, aldaketa oso txikiak ikusten dira, baloratzeko zailak direnak, praktika minoritarioak direlako.

37. Grafikoa.
**Amateur mailako praktiken bilakaera, 2008-2018 aldian (%)**




* Oinarria: Biztanleria osoa

3 2018. urtean ez bezala, praktikak bakarka edo taldean egitea bereizten zen 2008. urtean. Bi aukeren portzentajeak gehitu dira konparazioa egiteko.

4 Kontuan izan behar da kategoria honek “Beste arte plastiko batzuk” zuela izena 2008an eta 2018an, aldiz, “Eskulanak, artisau-lanak (Arte plastikoak)” bezala aurkezten zela.

## 4.3 Arte-trebakuntza

Biztanleen ia **% 30ek** egin ditu artearekin edo kulturarekin lotutako trebakuntza-ekintzak ikastetxetik edo institututik kanpo.

38. Grafikoa.
**Ikastetxetik edo instituziotik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotutako jardueraren bat egin dutenak (%)**




Gurutzatze-aldagai guztietan ikusten dira balorazio garrantzitsuak (Ikus erantsitako 38. grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Alde batetik, unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 40k egin du trebakuntza-ekintzaren bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen % 19k, eta ikasketa horiek amaitu ez dituztenen % 14k.
- Euskararen ezagutzaren arabera, 8 puntu inguruko aldea dago: biztanleria euskal hiztunaren % 35k, eta erdaldunaren % 27k.
- Adinaren aldagaiari dagokionez, arte- edo kultura-trebakuntzako jardueretako parte-hartzeak behera egiten du adinak gora egin ahala: 35 urtez azpiko pertsonen % 40 inguruk egin ditu era horretako jarduerak; portzentaje hori jaitsi egiten da modu progresiboan, eta 65 urtetik gorakoen artean, % 19,5 besterik ez dira trebakuntza-ekintzaren baten parte hartu dutenak.
- Emakumeek gizonek baino zertxobait gehiago hartzen dute parte arte- edo kultura-trebakuntzako jardueretan (% 32 eta % 27).
- Udalerriaren tamainaren arabera, ikusten da hiriburuetan batez ere, gorakada txiki bat ematen dela portzentajeetan, % 33koa da (50.000 biztanle baino gehiagoko eta 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko hirietan baino 4 puntu handiagoa da zifra hori).



Ipar Euskal Herrian, % 35ekoa da trebakuntza-jarduerak egin dituztenen proportzioa, % 33,5ekoa Nafarroako Foru Komunitatean, eta % 27,8koa EAEn.

**Zeharkako begirada** batetik ikusita, prestakuntza-jardueraren bat egin dutenen artean (biztanleriaren % 29,7), jarduerarik ohikoenak dira musika-tresnaren bat jotzea (% 33,3), dantza (% 28,8) eta marrazketa eta margolaritza (% 25,5).

39. Grafikoa.
**Arte- edo kultura-trebakuntzako alorren rankinga (%)**




Gainera, honako alderdi hauek ikusten dira:

- Musikaren alorreko trebakuntzak protagonismo handiagoa hartzen du, musika-tresnena ez diren beste kategoria batzuk kontuan hartuz gero.
- Margolaritzarekin edo marrazketarekin (% 25,5), beste arte plastiko batzuekin (% 13,4) eta argazkilaritzarekin (% 11,7) lotutako arte-trebetasunek ere interesa pizten dute.
- Arte eszenikoen alorra erakargarria da, dantzako (% 28,8), antzerkiko (% 11,6) eta zirkoko (% 1,2) prestakuntza-jarduerak kontuan hartuta.
- Biztanleen % 1,3k adierazi du Bertso-eskolaren batean ibili dela. Kontuan izan behar da inkestan ez direla kontuan hartu 15 urtez azpiko biztanleak; era horretan, kanpoan geratzen dira gaztetxoagoekin ikastetxeetan egiten den irakaskuntza-lana.

Eranskinean, hiru prestakuntza-alor nagusietarako gurutzaketa-aldagaiak jasotzen dituzten grafikoak aurki daitezke: 39. eranskineko grafikoa (musika-tresna bat jotzen ikastea), 40. eranskineko grafikoa (dantzako prestakuntza-jarduerak) eta 41. eranskineko grafikoa (margolaritzako edo marrazkigintzako prestakuntza-jarduerak).

# 5. PRAKTIKA DIGITALAK

## 5.1 Internetera sartzea

Biztanleriaren **% 76,3k** dio modu erregularrean sartzen dela Interneten; horrela, bada, jende gehienaren artean oso hedatuta dagoen praktika da.

40. Grafikoa.
**Internetera erregularki sartzen diren pertsonak (%)**




Adina eta ikasketa-maila dira alde esanguratsuak erakusten dituzten aldagaiak (elkarrekin zerikusia izan dezakete biek, nahiko fenomeno berria baita derrigorrezko bigarren hezkuntza luzeagoa orokortu izana). 42. eranskineko grafikoa ikus daitezke emaitzak:

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Zenbat eta adin txikiagoa, orduan eta Interneten erabilera handiagoa. Horrela, bada, 15 eta 24 urte bitarteko pertsonak dira Internetera gehien sartzen direnak, eta erabilera-mailak oso handiak dira 45 eta 54 urte bitartekoen taldera arte (% 97 eta % 85). 55-64 urte bitarteko taldera iritsita, 12 puntuko jaitsiera txiki bat gertatzen da (% 73), baina askoz handiagoa da jaitsiera hori 65 urtetik gorakoen taldean, 30 puntuko aldearekin (% 39).
- Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa, orduan eta erabilera handiagoa. Unibertsitate-mailako ikasketak dituzten pertsonak nabarmentzen dira (% 92k modu erregularrean erabiltzen du Internet), eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko titulazioa dutenak (% 81-% 82). Maila txikiagotan aurkitzen ditugu gaur egungo derrigorrezko bigarren hezkuntza dutenak (% 54), eta gaur egun derrigorrezkoak diren ikasketak amaitu ez dituztenak (% 37).

- Emakume eta gizonezkoen artean, euskara dakitenen eta ez dakitenen artean, tamaina ezberdinetako udalerrien artean eta lurralde historikoen artean, % 74 eta % 80 bitarteko portzentajeak mantentzen dira.

## 5.2 Kultura-praktika digitalak

Arretagaitzat Internetera erregularki nortzuk sartzen diren hartuz gero, aldeak ikusten dira kultura-praktiken artean. Emaitzetan ikusten den bezala, Internet ez da mundu ez-digitalean egiten diren praktikak beste formatu batean errepikatzen den lurraldea, baizik eta bereziki, informaziora sartzeko bitarteko eroso bat:

- Lehenik, oso zabalduta dauden (% 71 eta % 83 bitartean) lau praktikak osatutako blokea nabarmentzen da, albisteen irakurketa, informazio-bilaketa eta musika entzutea uztartuz.
- Bigarrenik, gutxiago zabalduta dauden (% 43 eta % 49 bitartean) praktikek osatutako bloke batek kultura-edukiko sarbide- edo deskarga-praktikak biltzen ditu, eta horrekin batera, zuzeneko ikuskizunetarako tiketen erosketa eta webgune edo blog pertsonaletarako bisita.
- Erabilera minoritarioenek hainbat jarduera biltzen dituzte, hala nola irratia entzutea, ikuskizunak ikustea, liburutegi-zerbitzuetarako sarbidea, bideojokoetara jokatzea, edo museo edo erakusketetarako bisita birtualak (% 28,5 eta % 15,2 bitarte). Azkenik, adierazi behar da Internetera erregularki sartzen den biztanleriaren % 8,4k webguneak edo blogak sortzen dituela.

41. Grafikoa.
**Kultura-praktika digitalen intzidentzia-maila biztanlerian azken hiru hilabeteetan (%)**




* Oinarria: Internetera erregularki sartzen den biztanleria (% 76,3)

43. eranskineko grafikoan (zuzenean irakurtzea), 44. eranskinekoan (informazioa bilatzea), 45. eranskinekoan (*wiki*ak kontsultatzea) eta 46. eranskineko grafikoan (musika entzutea), gurutzaketa-aldagaiek praktika digital hedatuenei nola eragiten dieten kontsulta daiteke.

## 5.3 Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea

Biztanleriaren guztizkoaren **% 30ak** kontu bat dauka kultura-edukia duen plataforma digitalaren motaren batean (% 40ak erregularki Internetera sartzen den biztanleria soilik kontuan hartuz gero).

42. Grafikoa.
**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Internetera modu erregularrean sartzen den biztanleriaren barruan, kultura-edukiko plataforma digitaletarako harpidetzak pisu handia du gazteen artean batez ere, nahiz eta aldeak ere badauden, ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren eta udalerriaren tamainaren arabera (47. eranskineko grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Adinari erreparatuz gero, 15 eta 24 urte bitartekoen taldean aurkituko dugu harpidetza-portzentajerik handiena (% 73), eta 65 urtetik gorakoen taldean, berriz, txikiena (% 12,6). 25 eta 34 urte bitartekoen artean, % 59koa da portzentaje hori, eta % 40ra jaisten da 35 eta 44 urte bitartekoen taldean.
- Ikasketa-mailaren arabera, ez da alde handirik detektatzen unibertsitate-mailako ikasketak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko ikasketak dituztenen artean, baina bai horien eta beheragoko mailako ikasketak dituztenen artean (10 puntu inguruko aldeak)
- Biztanleria euskal hiztunak 10 puntuko aldea ateratzen dio biztanleria erdaldunari (% 46,6 eta % 36,4).



Plataformek antzerako intzidentzia dute Nafarroako Foru Komunitatean eta EAEn (% 40-% 41 inguru); txikiagoa, berriz, Ipar Euskal Herrian (% 32,5).

### *Kontu mota*

Horrelako plataformetan konturen bat duten ohiko internautak kontuan hartuta, **hirutik bik ordainketa-kontu bat daukate**, dela banakoa (% 38,3), dela taldekoa (% 29,4)).

43. Grafikoa.
**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen bateria harpidetutako pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Adinarekin du zerikusia detektatzen den alde esanguratsuenak (48. eranskineko grafikoa). Banako ordainketa-kontuak pisu handiagoa dute 35 urtetik gorako pertsonetan. Taldeko ordainketa-kontuek eta doakoek oso antzeko pisua dute 15-24 urte bitarteko biztanleriaren artean.

## *Kultura-edukien tipologia*

Biztanleria osoa kontuan izanda, **% 20,7k** kontu bat dauka filmen eta sailen plataforma batean, **% 20,1ek** musika-plataforma batean eta **% 4,5ek** liburu digitalen plataforma batean.

44. Grafikoa.
**Kultura-edukirako sarbidea duen plataforma digitalen batera harpidetutako pertsonak beren tipologiari jarraikiz, biztanleria-taldeen arabera (%)**




49. eranskineko grafikoa ikus daitekeen bezala (grafiko horretan aldeak aztertzen dira, Internetera erregularki sartzen den eta harpidetza motaren bat duen biztanleria oinarritzat hartuta), badaude nolabaiteko aldeak ikasketa-mailaren, euskararen ezagutzaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera:

- Ikasketa-mailaren arabera, musika-plataformek intzidentzia handixeagoa dute ikasketa-maila txikiagoko pertsonen artean. Aitzitik, ikus-entzunezkoen plataformek intzidentzia handiagoa dute ikasketa-maila handiagoko pertsonen artean.
- Euskararen ezagutzaren arabera, euskal hiztunen segmentuak presentzia handiagoa du musika-plataformetan (% 74 eta % 63), eta erdaldunenak, berriz, ikus-entzunezkoen plataformetan (% 73 eta % 63).
- Adinari jarraikiz, alde nabarmenak detektatzen dira musikaren eta literaturaren kasuetarako. Musika-plataformak hedatuago daude 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (% 79,7), 65 urtetik gorako pertsonen artean baino (% 53,4). Literatura-plataformei dagokienez, ohikoagoak dira adin nagusiagokoen taldeetan (65 urtetik gorakoak kontuan izan gabe, talde horretan jaitsiera nabarmena ematen baita aurreragoko taldeekiko). 55 eta 64 urte bitartekoen artean, % 29koa da portzentajea, % 20,8koa 45 eta 54 urte bitartekoen taldean, eta % 12-% 13 ingurukoa, berriz, hortik beherako taldeetan.
- Udalerriaren tamainaren arabera, ikusten den alde bakarra da liburu digitalen plataformek intzidentzia handiagoa dutela 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko udalerrietan (% 21eko portzentajearekin, gainerakoetan baino 6-12 puntu gehiago).

## 5.4 Sare sozialak parte-hartze kulturalean

Internetera erregularki sartzen den biztanleriaren artean:

- % 24,5ek beste autore batzuen material artistiko edo kulturala partekatzen du, eta % 16,2k material propioa.
- % 20,6k sareak erabiltzen ditu beste artista batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko, profesionalak edo amateurrak direla ere.
- % 15,9k ere gogoeta pertsonalak idazten ditu sare sozialetan, eta % 8k blog eta webgune pertsonaletan idazten du.
- % 13,5ek gai kultural edo artistikoetako foroetan parte hartzea

45. Grafikoa.

**Ohiko internauten artean, kultura-praktikek sare sozialetan duten intzidentziaren rankinga (%)**




* Oinarria: Internetera erregularki sartzen den biztanleria (% 76,3)

Erantsitako 50. Grafikoan (Beste egile batzuen materiala partekatzea), 51.enean (Beste artista edo zale batzuk ezagutzea edo haiekin harremanetan jartzea), 52. Grafikoan (Norbere materiala partekatzea), 53. Grafikoan (Hausnarketak idaztea), 54. Grafikoan (Foroetan parte hartzea) eta 55. Grafikoan (Webgune edo blog batean idaztea), gurutzaketa-aldagaiek praktika bakoitzari nola eragiten dioten kontsulta daiteke.

# 6. EUSKARAZKO PARTE-HARTZE KULTURALA

## 6.1 Euskara jakitea

Biztanleriaren **% 29,7** da euskal hiztuna, euskara ondo edo nahi ondo hitz egiten dutenak[5]. Ondorengo grafikoak ikuspegi zabalagoa eskaintzen du, baina bi kategoria hauek aurrerago analisian erabiltzen den biztanleria euskal hiztuna identifikatzen dute.

46. Grafikoa.
**Euskaren ezagutza-maila, gaitasun ezberdinen arabera (%)**




Biztanleria euskal hiztunaren osaerari dagokionez, alde nabarmenak ikusten dira ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 56. Grafikoa):

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | **UDALERRIAREN TAMAINA** |
|---|---|---|---|---|

5 Portzentaje hau laginaren ezaugarrietan erakutsitakoarekiko zertxobait ezberdina da (% 28,8), bigarren sekzioko orri-oinean adierazi bezala, alde batera uzten direlako "Ez daki/Ez du erantzun" kategoriako kasu marjinalak, emaitzak errazago irakurtzeko eta interpretatzeko.

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 35,8 da euskal hiztuna, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituztenen % 23,2.
- Adinari erreparatzen badiogu, are handiagoak dira aldeak: gazteenen artean, gehiago dira euskal hiztunak: 15 eta 24 urte bitartekoen % 58,2k daki euskara (erdaldunak baino gehiago dira, beraz, euskal hiztunak); 65 urtetik gorakoen artean, berriz, % 21,3k bakarrik daki euskara.
- Udalerriaren tamainaren arabera, detektatzen da 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan eta hiriburuetan, herri txikietan baino 7-10 puntu gutxiagoko pisua duela biztanleria euskal hiztunak.

Biztanleria euskal hiztuna % 36,1ekoa da EAEn, % 21,8koa Ipar Euskal Herrian, eta % 11,7koa Nafarroako Foru Komunitatean.

2008ko datuak abiapuntutzat hartuta, euskararen ezagutzaren **bilakaera positiboa** izan dela ikus daiteke (58. Grafikoa), % 25,3tik % 29,7ra igaro baita.

47. Grafikoa.
**Biztanleria euskal hiztunaren bilakaera, 2008tik 2018ra (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik datoz 2008ko datuak.

## 6.2 Euskarazko parte-hartze orokorra

Euskal Herriko biztanleriaren **% 22,8koa** da euskarazko parte-hartze kulturala (eskuarki euskaraz parte hartzen dutela dioten pertsonak).

48. Grafikoa.

**Normalean euskarazko kultura-jarduneretan parte hartzen dutela esaten duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Hizkuntza jakiteak mugatzen du euskarazko parte-hartze kulturala, eta horrekin batera berezko kultura-praktika bakoitzaren ezaugarriek eta hizkuntzak praktika bakoitzean duen eragina. Ildo horretan, ez da gauza bera musika entzutea eta liburu bat edo aldizkari bat irakurtzea, bertso-saio batera joatea edo euskarazko antzerkira joatea. Praktika batzuk beste batzuk baino testualagoak dira, eta, horrenbestez, hizkuntza jakitearen eragina aldatu egiten da praktika horien artean. Zenbat eta testualagoak izan, oztopo handiagoa izan liteke gaitasun nahikoa ez daukatenentzat.

Azterketan uztartzen diren eta eragina duten elementuak dira. Parte hartzen duen biztanleriaren arteko aldean egiazta daiteke, osorik hartzen bada edo biztanleria euskal hiztuna soilik hartzen bada. Azken segmentu horri erreparatzen badiogu, normalean euskaraz parte hartzen duen biztanleria **% 55,7ra** iristen da.

Horregatik, biztanleria euskal hiztunaren identifikazioan aldeak eragiten dituzten aldagaiek euskarazko parte-hartze kultura analizatzerakoan ere eragiten dituzte aldeak, oso antzerako moduan (Ikus erantsitako 57. Grafikoa). Ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren araberakoak dira aldeok. Horiei, praktika kultura ezberdinetan intzidentzia handiena dutenak gehitu beharko litzaizkieke:

| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | **UDALERRIAREN TAMAINA** |
|---|---|---|---|---|

- Unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 31,2k egiten ditu kultura-jarduerak euskaraz, oinarrizko ikasketak amaitu ez zituztenei 20 puntu ateraz (% 11,6).
- Adinaren arabera ere aldatzen da euskarazko parte-hartze kulturala: 15 eta 24 urte bitarteko gazteek (% 31), 65 urtetik gorako pertsonek baino (% 53,4) gehiago hartzen dute parte euskaraz.
- Hiriburuetan eta 50.000 biztanle baino gehiagoko hirietan, batez bestekoa baino (% 15,8) txikiagoa da euskarazko parte-hartzea.



Euskarazko parte-hartzea % 26,9koa da Ipar Euskal Herrian, % 24,9koa EAEn, eta % 13,4koa Nafarroako Foru Komunitatean.

## 6.3 Euskarazko kultura-praktikak

### 6.3.1 *Praktika eszenikoak eta musikalak euskaraz*

#### *Antzerkia euskaraz*

Arte eszenikoen publikoaren artean[6] –biztanleriaren % 47–, **% 24,7** euskarazko antzezlanen bat ikustera joan da. Zuzeneko arteen publiko euskal hiztunari begiratuz gero, erdiak inguruk (% 49,5) hartu du parte euskarazko proposamenetan.

49. Grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin euskarazko antzezlanen bat ikustera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Euskarazko antzerki-emanaldietara joan direnei erreparatuz gero –euskal hiztunak zein erdaldunak–, aldeak daude ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 58. Grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **IKASKETA-MAILA** | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | **UDALERRIAREN TAMAINA** |

- Euskarazko antzerki-emanaldietara gehien joaten diren pertsonak dira unibertsitate-mailako ikasketak dituztenak (% 29,8); amaitutako ikasketen mailak behera egin ahala, txikitu egiten da portzentajea ere.
- Nabarmentzekoa da euskarazko antzerki-emanaldietara joaten diren 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen portzentajea ere (% 36,2). 45 urtetik gorako biztanleak dira gutxien joaten direnak (% 16 inguru), eta tartean kokatzen dira 15 eta 34 urte bitartekoak (% 25 inguru). Datu horiek zerikusia izan dezakete euskaraz dagoen eskaintza batez ere familiarteko publikoari zuzendutakoa izatearekin.

6 Azkeneko 12 hilabeteetan, ikuskizunen batera gutxienez behin joan diren pertsonak (% 46,9).

- Udalerriaren tamaina kontuan izanda, hiriburuetakoa da portzentajerik txikiena (% 18,1), eta 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan aurkitzen dira, ostera, portzentajerik handienak (% 30 inguru).

EAE da euskarazko antzerki-ikuskizunetara joaten den jende-proportziorik handieneko eremua (% 27,8). Ipar Euskal Herrian, % 20,5ekoa da proportzio hori, eta % 15,8koa, azkenik, Nafarroako Foru Komunitatean.

## *Musika euskaraz*

Biztanleriaren guztizkoaren **% 55ek** entzuten ditu eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak. Portzentaje hori % 83,5ekoa da, euskal hiztunak bakarrik aztertzen baditugu. Kontuan izan behar da oso hedatuta dagoen praktika dela musika entzutea eta, gainera, hizkuntza ez dela oztopo gaindiezin bat.

50. Grafikoa.
**Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Euskarazko musikari dagokionez, gurutzaketa-aldagaien araberako alde txikiagoak daude (Ikus erantsitako 59. Grafikoa). Biztanleria osoaren analisia eginda, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren araberako kategoria batzuen portzentaje txikiagoak bakarrik nabarmentzen dira:

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez zituzten pertsonak bakarrik daude biztanleria osoaren % 55eko portzentajearen azpitik.
- Hiriburuak ere portzentaje txikixeagoarekin ageri zaizkigu (% 48,8), 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko udalerrien kasuan gertatzen denaren kontra, non % 64,7koa baiten proportzio hori.

Administrazio-eremuei dagokienez, % 65,3ra arte igotzen da proportzio hori IPar Euskal Herrian; EAE dago jarraian (% 57,7) eta Nafarroako Foru Komunitatea azkenik (% 40,5).

### *Bertsolaritza*

Arte eszenikoaren publikoaren artean[7] –biztanleria osoaren % 46,9–, **% 20,8** joan da bertso-saioren batera.

51. Grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Udalerriaren tamainaren araberakoak dira detektatzen diren alde esanguratsu bakarrak (Ikus erantsitako 60. Grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- 25.000 biztanle baino gehiagoko hirien kasuan (hiriburuak barne), ez dago % 18ko portzentajea gainditzen duenik; 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko hirietan, aldiz, % 30ekoa da portzentaje hori, eta % 24,3koa 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan.



EAE da, alde handiarekin, bertso-saioetara joaten den jende gehien duen administrazio-eremua (% 24,2). Ipar Euskal Herrian, % 15,9koa da proportzio hori, eta % 11,3koa, berriz, Nafarroako Foru Komunitatean.

## 6.3.2 *Euskarazko ikus-entzunezko praktikak*

### *Zinema euskaraz*

Biztanleria osoaren **% 15,4k** nahiago du (ez da benetako asistentzia) euskarazko zinema. Euskal hiztunen kasuan, % 45,3ra igotzen da portzentaje hori.

---

7 Azkeneko 12 hilabeteetan, gutxienez ikuskizun batera joan diren pertsonak (lagin osoaren % 46,9).

52. Grafikoa.
**Zinema euskaraz nahiago duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Lehentasun hori adinak baldintzatzen du batez ere. Neurri txikiagoan bada ere, baita ikasketa-mailak ere eta, udalerriaren tamainaren arabera, aurreko kasuetako patroi berari jarraitzen zaio (Ikus erantsitako 61. Grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Euskarazko zinemaren aldeko hautua handiagoa da gazteen artean. 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 25,3k dio nahiago duela euskarazko zinema kontsumitzea; proportzio hori jaisten doa adina handitu ahala, eta 55 eta 64 urte bitartekoen kasuan % 10,6koa da, eta % 12,9koa, berriz, 65 urtetik gorakoen kasuan.
- Ikasketa-maila kontuan hartuz gero, oso txikiak dira aldeak, baina muturreko mailen artean ageri dira: unibertsitate-mailako ikasketak dituztenen % 17,6k ditu nahiago euskarazko filmak; derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituztenen kasuan, berriz, % 9,9k.
- Udalerriaren tamainaren arabera, bestalde, euskarazko filmak nahiago dituztenak % 22,7 dira 10.000 eta 25.000 biztanle bitarteko udalerrietan (horixe da portzentajerik handiena), eta % 9,7 bakarrik hiriburuetan (portzentajerik txikiena).



Lurralde ezberdinen arteko alderaketa eginez gero, ikusiko dugu EAE dagoela aurrena (% 18,4), Ipar Euskal Herria ondoren (% 10,8), eta Nafarroako Foru Komunitatea azkenik (% 7,1).

## *Irratia eta telebista euskaraz*

Euskarazko irratiak euskarazko telebistak baino publiko portzentaje handiagoa du: **% 25,7** eta **% 20,9**, hurrenez hurren. Kontuan izan behar da irratiaren eta telebistaren kasuan, oro har, kontrakoa gertatzen dela: biztanleriaren % 81,4k entzuten du irratia, eta % 93,5ek ikusten du telebista.

Logikoa den bezala, euskarazko kontsumo hori askoz handiagoa da euskal hiztunen artean: hamar lagunetik zazpik kontsumitzen du irratia euskaraz, eta hamarretik seik, berriz, kontsumitzen du telebista euskaraz.

53. Grafikoa.
**Irratia eta telebista euskaraz kontsumitzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Gurutzatze-aldagaiei dagokienez, kasu honetan ere euskara jakitearen eragina ikusten da, eta patroi bera errepikatzen da ikasketa-mailaren, adinaren eta udalerriaren tamainaren arabera (Ikus erantsitako 62. Grafikoa): Zenbat eta ikasketa-maila handiagoa eta adin txikiagoa, baita udalerri txikienetan ere, orduan eta handiagoa euskarazko komunikabideen kontsumoa.



Ipar Euskal Herriaren kasuan, nabarmentzekoa da euskarazko irratiaren presentzia (% 24; telebistaren kasuan, aldiz, % 8koa).

EAEn presentzia esanguratsua dute irratiak zein telebistak, % 26ko eta % 30eko presentziarekin, hurrenez hurren.

Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, % 10 ingurukoa da portzentajea.

## 6.3.3 *Euskarazko irakurketa-praktikak*

### *Liburuak euskaraz*

Irakurleen[8] **% 15,8k** euskarazko liburuak irakurri ditu azkeneko hiru hilabeteetan; Biztanleriaren % 74,9 dira irakurleak. Euskal hiztun irakurleei erreparatuz gero, % 44,8koa da portzentaje hori.

8 Azkeneko 12 hilabeteetan, gutxienez liburu bat irakurri duten pertsonak (lagin osoaren % 74,9)

54. Grafikoa.
**Euskarazko irakurketa-maiztasuna azkeneko 3 hilabeteetan, biztanleria-tadeen arabera (%)**




Adinaren aldagaia da irakurleen artean, euskaraz irakurtzeari dagokionez, inpaktu adierazgarria duen bakarra (Ikus erantsitako 63. Grafikoa):

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | **ADINA** | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |

- Praktika hori gutxituz doa; 15 eta 24 urte bitartekoen taldean % 19,6 dira, eta % 4,4, berriz, 65 urtetik gorakoen taldean.

EAEn, % 11,5ekoa da euskaraz irakurtzen dutenen portzentajea, % 5,2koa Nafarroako Foru Komunitatean, eta % 3koa Ipar Euskal Herrian.

## *Euskarazko egunkariak eta aldizkariak*

Antzerako irakurle kopurua dute euskarazko aldizkari eta egunkariek: **% 16** ingurukoa. Kasu honetan, fenomeno berezi bat ematen da; izan ere, biztanleria osoaren % 76,2 dira ohiko egunkari-irakurleak, eta % 33, berriz, aldizkarienak. Beste komunikabide batzuekin gertatzen den bezala, badirudi hizkuntzaren ezagupenari ez dagozkion beste arrazoi batzuk daudela, eskaintzarekin zerikusia dutenak.

Biztanleria euskal hiztuna bakarrik kontuan hartuta, % 48ra (egunkaria) eta % 44ra (aldizkariak) iristen da komunikabide horien euskarazko kontsumoa.

55. Grafikoa.

**Euskarazko egunkariak eta aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Euskararen ezagutza baldintzatzen duten aldagai berberek baldintzatzen dituzte praktika hauek ere. Hau da, emaitzak hobeak dira prestakuntza-maila handieneko biztanleen, gazteenen eta udalerri txikienetan bizi direnen artean (Ikus erantsitako 64. Grafikoa).



Ipar Euskal Herrian zein Nafarroako Foru Komunitatean, % 6 eta % 10 artekoak dira euskarazko aldizkari eta egunkarien irakurketa-portzentajeak.

Bestelakoa da EAEko egoera; % 19ra iristen dira portzentajeak kasu bietan.

## 6.3.4 *Laburpen konparatiboa*

Praktiken arteko **zeharkako begiradari** erreparatuz, ikus daiteke biztanleria osoan[9] intzidentzia handiena duen praktika musika entzutea dela (% 55). Biztanleria euskal hiztunaren kasuan, % 83,5ekoa da portzentaje hori.

Atzetik, alde handira, antzerki-ikuskizunetara joatea (% 17,8) eta irakurketa (% 11,8) daude. Zinemari dagokionez, euskarazko zinemarako lehentasuna biltzen dute datuek eta ez benetako asistentzia. % 15,4k euskarazko zinema nahiago du.

Hiru praktika horietarako, % 45-% 50 tarteraino igoko dira portzentajeak, oinarritzat biztanleria euskal hiztuna hartzen bada.

[9] Kontuan izanda azken helburua euskarazko parte-hartzea biztanleria osoaren artean zabaltzea dela, praktikek duten intzidentzia erakusten da, biztanleria osoaren artean zein biztanleria euskal hiztunaren artean. Hizkuntza-oztopoa garrantzitsua bada ere, erreferentziatzat biztanleria euskal hiztuna soilik hartuz gero irudi lezake azken helburua euskarazko parte-hartze kulturala segmentu horretan soilik zabaltzea dela.

56. Grafikoa.
**Kultura-praktikek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)**




*Zinemari dagokionez ez da galdetzen euskarazko filmetarako asistentziagatik, baizik eta euskarazko zinemarako lehentasunagatik, hautatzeko aukera izanez gero.

Irudi osoagoa eskaintzeko, euskarazko zenbait praktiketarako **2008-2018 aldiko konparatiba historiko** bat ahalbidetzen duten galderak biltzen zituen inkestak euskarazko praktika batzuetarako (58. grafikoa).

57. Grafikoa.
**Euskarazko kultura-praktiken bilakaera 2008tik 2018ra bitartean, biztanleria osoaren artean (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

Konparatutako praktiken artean, gorakada argiak ikusten dira euskarazko antzerkirako eta bertso-saioetarako asistentziari dagokionez zein euskal musikariak edo musika-taldeak entzuteari dagokionez:

- Antzerkiari dagokionez, % 5,4tik % 17,8ra igo da azken urtean euskarazko antzerkira gutxienez behin bertaratu direla esaten duten pertsonen portzentajea.
- Bertso-saioei dagokionez, asistentzia bikoiztu egin da, % 7,6tik % 15,6ra igarota.
- Normalean euskal musikariak edo musika-taldeak entzuteari dagokionez, % 46,4tik % 54,7ra igo da.

Zinemari dagokionez, bertaratzen direneko filmak euskaraz proiektatzen direla esaten duten pertsonen portzentajea oso txikia bada ere, % 0,4tik % 1,3ra igaro da.

Azkenik, azken 3 hilabeteetan gutxienez euskarazko liburu bat irakurri izanak % 12 inguruan atxikitzen du modu egonkorrean puntu horri dagokion portzentajea.

## 6.4 Euskarazko praktika digitalak

### 6.4.1 *Euskarazko irakurketa eta musika digitalak*

Erabilera digitalari dagokionez, Internetera erregularki sartzen direnen **% 30,1** –lagin osoaren % 76,3 dira Internetera erregularki sartzen direnak–, entzuten du euskarazko musika. Portzentaje hori bikoitza da euskal hiztunen kasuan (% 61,8)

Biztanleria internautaren artean,  14,4k euskarazko webguneak edo bestelako agiriak irakurtzen ditu, **% 13,9k** euskarazko blogak, eta **% 13,1ek** euskarazko liburuak irakurtzen edo jaisten ditu. Internauta euskal hiztunen portzentajeak hirukoitzak dira: % 42,4k irakurtzen ditu euskarazko webguneak eta agiriak; % 35,4k irakurtzen edo jaisten ditu euskarazko liburuak, eta % 37,4k irakurtzen ditu euskarazko blogak.

58. Grafikoa.
**Euskarazko praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)**



Irakurketari zein musikari dagokionez, alde gutxi daude gurutzaketa-aldagaien eraginez (Ikus erantsitako 65. Grafikoa). Internetera erregularki sartzen den biztanleria kontuan izanda, ikasketa-mailari, adinari eta udalerriaren tamainari dagozkien kategoria jakin batzuetarako bakarrik ikusten dira aldeak:

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikasketak amaitu ez dituzten pertsonen kasuan, euskarazko liburuak irakurtzeak eta jaisteak gainerako mailetako pertsonetan duenaren pisu bikoitza du (% 28,6ra artekoa). Horrek adinaren eta euskaraz eskolatutako gazteen presentziara garamatza; gazte horiek ikasten jarraitzen dute, ez dute oraindik beren ikasketak amaitzeko denborarik izan.
- Adinaren kasuan, zehazki, 15 eta 24 urte bitarteko biztanleak dira berriz ere euskarazko praktika digital gehien egiten dituztenak; portzentaje horiek murrizten doaz adin nagusiagoko taldeetara jo ahala.
- Aurrez deskribatutako patroiari jarraiki, 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan (batez ere 10.000 eta 25.000 biztanle bitartekoetan), hiri handiagoetan eta hiriburuetan baino parte-hartze handixeagoa dago.

EAE da Interneten euskaraz musika gehien entzuten den lurraldea (% 33,5); Ipar Euskal Herria dago ondoren (% 26,6) eta Nafarroako Foru Komunitatea azkenik (% 20,6).

Irakurketari dagokionez, EAE gailentzen da, euskaraz irakurtzen dutenen portzentaje askoz handiagoekin (% 17,1ek blogak irakurtzen ditu, % 15,5ek liburuak, eta % 17,9k webguneak). Nafarroako Foru Komunitatea dago ondoren (% 6 eta % 7 artekoak dira irakurketaren portzentajeak) eta Ipar Euskal Herria azken tokian (% 4-% 7).

## 6.4.2 *Euskarazko sare sozialak eta foroak*

Internetera erregularki sartzen diren pertsonen artean, **% 14** ingurukoa da –kasu bietan– foroetan euskaraz parte hartzen dutenen eta sare sozialetan nabigatzeko euskara erabiltzen dutenen portzentajea. Internauta euskal hiztunen datuek % 40ra arte igotzen dute portzentaje hori.

59. Grafikoa.

**Euskarazko praktika kultural aktiboek esparru digitalean izan duten intzidentziaren konparatiba, biztanleria-taldeen arabera (%)**




Gurutzatze-aldagaiek aurrez gainerako praktiketan detektatutako ohiko patroia erakusten dute (Ikus erantsitako 66. Grafikoa):

| IKASKETA-MAILA | EUSKARA JAKITEA | ADINA | SEXUA | UDALERRIAREN TAMAINA |
|---|---|---|---|---|

- Ikasketa-maila handieneko pertsonek, gazteenek eta 25.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan bizi direnek emaitza hobeak erakusten dituzte, ikasketa-maila txikiagokoek, adinekoek eta hiriburuetan bizi direnek baino, hurrenez hurren.
- Administrazio-eremuari dagokionez, espazio horietako bakoitzeko parte-hartzea % 17 ingurukoa da EAEn, % 8koa Nafarroako Foru Komunitatean, eta % 3 (foroetan) eta % 6,4 (sare sozialetan) artekoa, berriz, Ipar Euskal Herrian.

## 6.4.3 *Laburpen konparatiboa*

Zeharkako begirada batetik ikusita, ohiko internauten segmentua berriz ere erreferentzia gisa hartuta, berriz ere musika nabarmentzen da **% 30,1arekin** gainerako praktiken gainetik, **% 14** ingurura iristen baitira.

60. Grafikoa.
**Praktika digitalek biztanlerian izan duten intzidentziaren rankinga, biztanleria-taldeen arabera (%)**




## 6.5 Amateur mailako praktikak: bertsolaritza

Arte- edo kultura-jardueraren batean modu aktiboan parte hartzen duten pertsonen artean[10] (biztanleriaren % 34,3), **% 2,3k** praktikatu du bertsolaritza.

61. Grafikoa.
**Bertsolaritza praktikatzen duten pertsonak, biztanleria-taldeen arabera (%)**




10 Azkeneko 12 hilabeteetan, gutxienez behin amateur mailako praktikaren bat egin dutela adierazi duten pertsonak (lagin osoaren % 34,3)

Bertso-saioetarako asistentziak pisu esanguratsua du (3.1.5. atala), eta nabarmen hazi da 2008tik (3.5. atala); amateur mailako bertsolaritzako praktikaren bilakaerak, aldiz, kontrako joera izan du, jaitsi egin da pixka bat. Kontuan izan behar da bertsolaritza gaztetxotan praktikatzen dela, eta adin horietakoak ez direla kontuan hartu inkesta honetan.

62. Grafikoa.
**Biztanleria osoan bertsolaritza praktikatzen duen pertsona kopuruaren bilakaera (%)**




*Kulturaren Euskal Behatokiaren “2008ko kultura-ohitura, -praktika eta -kontsumoei buruzko inkestaren” ustiapenetik beretik datoz 2008ko emaitzak.

## 6.6 Euskarazko parte-hartzearen arrazoi subjektibo nagusiak

Biztanleriak euskaraz parte hartzearen alde ematen dituen arrazoiei buruzko atal bat jasotzen du inkestak. Aukeran ematen diren bost arrazoien artean, **euskararekiko konpromisoa** eta **lagunak, senitartekoak edo norekin joan** erantzunak nabarmentzen dira. Arrazoi horiek norbanakoek euskarazko kultura-jarduerak egiteko baloratzen dituzten elementu gisa interpretatu behar dira.

63. Grafikoa.
**Euskarazko parte-hartze kulturala azaltzeko arrazoi subjektiboen rankinga (%)**




* Oinarria: Euskarazko kulturaren publikoa
* Oharra: Portzentajeen batura 100 baino handiagoa da, galderak erantzun bat baino gehiago emateko aukera ematen zuelako

***1/5 arrazoia: Euskararekiko konpromisoa***

- Oro har, zeharkako pisua du gurutzaketa-aldagai ezberdinetan (Ikus erantsitako 67. Grafikoa).

- Administrazio-eremuen arteko aldeak oso txikiak dira; arrazoi honek garrantzi handixeagoa du Ipar Euskal Herrian (% 59,5), Nafarroako Foru Komunitatean (% 56,3) eta EAEn (% 54,1) baino.

***2/5 arrazoia: Lagunak, senitartekoak edo norekin joan***

- Pisu handia du 35-44 urte bitarteko taldean (% 61,7) eta 15-24 urtekoenean (% 58,4), eta % 40 ingurura jaisten da portzentajea 55 urtetik gorakoen artean (Ikus erantsitako 68. Grafikoa).

- Nafarroako Foru Komunitatekoa (% 50) eta EAEkoa (% 53,9) dira portzentajerik handienak, eta txikixeagoa da Ipar Euskal Herrikoa (% 40,2).

***3/5 arrazoia: Eskaintzaren kalitatea***

- Arrazoi horrek garrantzia hartzen du adinaren arabera; 15 eta 24 urte bitartekoen taldean % 20,3koa da arrazoi hori ematen dutenen portzentajea, eta % 327koa, berriz, 65 urtetik gorakoenean (Ikus erantsitako 69. Grafikoa).

- Ikasketa-mailari erreparatzen badiogu, ikasketa-maila handieneko (unibertsitate-mailakoak) pertsonen % 30,2k aipatzen du garrantzitsu gisa arrazoi hori, eta ikasketa-maila txikiagokoen (derrigorrezko bigarren hezkuntza ez dutenak) % 19,5ek.

- Nafarroako Foru Komunitateko biztanleek EAEkoek eta Ipar Euskal Herrikoek baino garrantzi txikiagoa ematen diote (% 22 eta % 28 inguru).

***4/5 arrazoia: Hurbileko eskaintza kopurua***

- Arrazoi hori hedatuagoa da udalerri txikienetan (% 30). 25.000 biztanle baino gehiagoko hirietan garrantzi txikiagoa dauka , % 18,8 ingurukoa (Ikus erantsitako 70. Grafikoa).

- Ipar Euskal Herrian gutxiago ageri da arrazoi garrantzitsu gisa (% 17,4); EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean, berriz, % 27 inguru dira arrazoi hori ematen dutenak.

***5/5 arrazoia: Hizkuntzak ematen duen erosotasuna***

- Arrazoi hori gazteenentzat eta ikasketa-maila txikiagoak dituztenentzat da garrantzitsua; horrek esan nahi dezake belaunaldiak eragina duela hizkuntzaren ezagutzan (Ikus erantsitako 71. Grafikoa).

- Administrazio-eremuei dagokienez, Ipar Euskal Herriko inkestatuen % 30,6k aipatzen du arrazoi garrantzitsu gisa; portzentaje hori handiagoa da, Nafarroako Foru Komunitatekoa (% 16,7) eta EAEkoa (% 21) baino.

## 6.7 Informazio-kanalak

**Ahoz ahokoa** eta **Internet eta sare sozialak** dira euskarazko jardueren inguruan informatzeko kanal nagusiak; atzetik daude, oso gertu, **kartelak edo paperezko euskarriko bestelako publizitatea** eta, pisu txikiagoarekin, komunikabideak.

64. Grafikoa.
**Pertsonek euskarazko kultura-eskaintza ezagutzen duten informazio-kanal nagusiak (%)**




* Oinarria: Euskarazko kulturaren publikoa

Kanal ezberdinen inpaktu ezberdina dute profil ezberdineko biztanleengan, batez ere adina eta udalerriaren tamaina kontuan izanda (Ikus erantsitako 72. Grafikoa):

- **Ahoz ahokoa** ikasketa-maila txikiagoko biztanleen artean (% 38,6), 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (% 33,3), hiriburuetan (% 35,1) eta, batez ere, Ipar Euskal Herrian (% 38,4) nabarmentzen da.
- **Internetek** garrantzi txikiagoa du udalerri txikienetan; kartelek eta paperezko euskarriko publizitateak hiri handiagoetan baino presentzia handiagoa dute herri horietan.
- **Komunikabideak** 55 urtetik gorakoen artean nabarmentzen da (% 29 inguru); 34 urtez azpikoen artean, aldiz, ez du % 12ko portzentajea gainditzen.



Ipar Euskal Herrian garrantzi handia du ahoz ahokoak (% 38), eta EAEn eta Nafarroako Foru Komunitatean baino pisu handiagoa dute komunikabideek (% 21 eta % 17 inguru).

Ahoz ahokoaren garrantzia txikiagoa da Nafarroako Foru Komunitatean (% 31), eta % 25eko pisua du Internetek.

EAEn, ordea, are txikiagoa da ahoz ahokoaren garrantzia, eta handiagoa, berriz, Internetena (% 30,5).

## 6.8 Eskaintzaren mugak

Oro har, euskaraz parte hartzeko oztopoei eta mugei buruzko biztanleen iritzien artean, **euskarazko eskaintzaren kalitatea eta interesa** identifikatzen da muga nagusitzat (% 34); eskaintzaren gertutasuna eta aniztasuna daude hurrengo tokian (% 22 eta % 19, hurrenez hurren) eta, azkenik, eskaintza kopurua (% 13).

65. Grafikoa.
**Eskaintzaren muga nagusiak, biztanleriaren arabera (%)**




* Oinarria: Biztanleria osoa

Alde txikiak detektatzen dira muga ezberdinen balorazioan (Ikus erantsitako 73. Grafikoa):

- Nabarmen ez bada ere, aniztasuna gailentzen da ikasketa-maila handieneko pertsonen artean (%23; ikasketa-maila txikiagoko pertsonen % 9k bakarrik aipatzen du muga hori) eta gazteenen adin-tarteetan (% 27; 55 urtetik gorakoen artean, % 10- % 15ekoa da portzentaje hori).



Kalitatea eta interesa da EAEko (% 36,6) eta Nafarroako Foru Komunitateko (% 33,1) biztanleek ikusten duten muga nagusia.
Ipar Euskal Herrian bakarrik nabarmentzen da eskaintzaren aniztasuna (% 34) muga nagusi gisa, eskaintzaren kalitatearen eta interesaren (% 17) aurretik.

# ERANSKINAK

# 1. ERANSKINA: GURUTZAKETA-GRAFIKOAK

## Kulturarekiko jarrera orokorrak

### Kulturaren garrantziaren auto-pertzepzioa

Erantsitako 1. grafikoa.
**Elkarrizketatutako pertsonentzat kultura-jardueretan parte hartzeak duen batez besteko garrantzia, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera, 1etik (Txikia edo batere ez) 10erako (Handia) eskala batean**




[Txostenera itzuli]

## Kultura-informazioko maila

Erantsitako 2. grafikoa.
**Elkarrizketatutako pertsonek adierazten duten kulturari buruzko informazio-mailaren batez besteko auto-balorazioa, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera, 1etik (Batere ez) 4rako (Handia) eskala batean.**




[Txostenera itzuli]

## Kultura, gizarte-loturen sortzaile

Erantsitako 3. grafikoa.

**Pertsonak, kultura-jarduerari esker beste pertsona batzuekin egin duten adiskidetasun- edo harreman-mailari buruz duten pertzepzioari jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Kultura-praktiketarako motibazioa

Erantsitako 4. grafikoa.
**Pertsonak, kultura-praktiketarako (parte-hartze harkorra) duten motibazioari jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Asoziazionismorako eta amateur mailako arte-praktiketarako motibazioa

Erantsitako 5. grafikoa.

**Pertsonak, asoziazionismorako eta amateur mailako arte-praktiketarako (parte-hartze sortzailea) duten motibazioari jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Praktika digitaletarako motibazioa

Erantsitako 6. grafikoa.
**Pertsonak, praktika digitaletarako (parte-hartze digitala) duten motibazioari jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Kultura-praktikak

### Praktika eszenikoak eta musikalak

Antzerkira joatea

Erantsitako 7. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan antzerkira joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Dantza-ikuskizunetara joatea

Erantsitako 8. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan dantza-ikuskizunen batera joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Kontzertuetara joatea

Erantsitako 9. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan kontzertutara joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Grabatutako musika entzuteko maiztasuna

Erantsitako 10. grafikoa.
**Grabatutako musika egunero entzuten duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Musikalak

Erantsitako 11. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez musikal batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Haurrentzako antzerkia

Erantsitako 12. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin haurrentzako antzerki-ikuskizun batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

<u>Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Magia-ikuskizunak</u>

Erantsitako 13. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin magia-ikuskizun batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Bertso-saioak

Erantsitako 14. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin bertso-saio batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Zirkoa

Erantsitako 15. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin zirko-ikuskizun batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Zuzeneko beste ikuskizun batzuk: Opera

Erantsitako 16. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez behin opera-ikuskizun batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Ikus-entzunezko praktikak

### Zinemara joatea

Erantsitako 17. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan zinemara joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

<u>Azpitituluen aldeko jarrera</u>

Erantsitako 18. grafikoa.
**Filmak ikusterakoan, bikoizketa baino azpi-tituluak nahiago dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Bideojokoak

Erantsitako 19. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan bideojokoak erabili dituzten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




*Oharra: “Egunero” kategoria “Egunero” eta “Gutxienez astean behin” kategorien batura da. “Noizean behin” kategoria “Gutxienez hilean behin”, “Gutxienez hiru hilean behin” eta “Gutxienez urtean behin” kategorien batura da.

[Txostenera itzuli]

## Telebistaren erabilera-mailak

Erantsitako 20. grafikoa.

**Telebista ikusten duten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




*“Astero” kategoria “Astean hiruzpalau egunetan”, “Astean egun batean edo bi egunetan” eta “Asteburutan bakarrik” kategorien batura da. “Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez” kategoria “Hilean bizpahiru aldiz”, “Hilean behin”, “Gutxiagotan” eta “Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez” kategorien batura da

[Txostenera itzuli]

## Irratiaren erabilera-mailak

Erantsitako 21. grafikoa.

**Irratia entzuten duten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




*"Astero" kategoria "Astean hiruzpalau egunetan", "Astean egun batean edo bi egunetan" eta "Asteburutan bakarrik" kategorien batura da. "Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez" kategoria "Hilean bizpahiru aldiz", "Hilean behin", "Gutxiagotan" eta "Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez" kategorien batura da

[Txostenera itzuli]

## Irakurtzea

### Liburuak

Erantsitako 22. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan liburuern bat irakurri duten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Egunkarien irakurketa-maila

Erantsitako 23. grafikoa.

**Egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




*Oharra: "Astero" kategoria "Astean hiruzpalau egunetan", "Astean egun batean edo bi egunetan" eta "Asteburutan bakarrik" kategorien batura da. "Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez" kategoria "Hilean bi-zpahiru aldiz", "Hilean behin", "Gutxiagotan (hilean behin baino)" eta "Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez" kategorien batura da

[Txostenera itzuli]

Aldizkarien irakurketa-mailak

Erantsitako 24. grafikoa.
**Aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




*Oharra: “Astero” kategoria “Astean hiruzpalau egunetan”, “Astean egun batean edo bi egunetan” eta “Asteburutan bakarrik” kategorien batura da. “Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez” kategoria “Hilean bi-zpahiru aldiz”, “Hilean behin”, “Gutxiagotan (hilean behin baino)” eta “Inoiz ere ez edo ia inoiz ere ez” kategorien batura da.

[Txostenera itzuli]

## Liburutegira joatea

Erantsitako 25. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan liburutegira joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Liburutegietako kultura-jarduerak

Erantsitako 26. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan liburutegietako kultura-jardueretara joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan, liburutegira gutxienez behin joan diren pertsonak.

[Txostenera itzuli]

## Erakusketetarako bisitak

### Museoetarako asistentzia

Erantsitako 27. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan museotara joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Arte-galerietarako asistentzia

Erantsitako 28. grafikoa.

**Azkeneko 12 hilabeteetan arte-galeria batera joan diren pertsonak (maiztasun ezberdinak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Museo eta arte-galerietarako bisiten esparrua

Erantsitako 29. grafikoa.

**Pertsonak, museo edo arte-galerietarako bisiten testuinguruari jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oharra: Barrak % 100ean metatzen diren arren, baliogabetu egin da "Arrazoi akademikoak edo profesionalak" kategoria, ez duelako pisurik analisirako, era horretan egoeren arteko alderaketa errazteko asmoz.

[Txostenera itzuli]

# Asoziazionismoa eta amateur mailako praktikak

## Asoziazionismo kulturala

Erantsitako 30. grafikoa.
**Kultura-elkarteetan modu aktiboan parte hartzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Amateur mailako praktika artistikoak

Erantsitako 31. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan gutxienez sormen-jarduera bat egin duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Eskulanak eta artisautza

Erantsitako 32. grafikoa.

**Eskulanak edo artisautza-lanak egiten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Dantza

Erantsitako 33. grafikoa.
**Dantza praktikatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Margolaritza edo marrazkigintza

Erantsitako 34. grafikoa.
**Marrazkigintza edo margolaritza praktikatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Musika (Musika-tresnak jotzea)

Erantsitako 35. grafikoa.
**Musika-tresnaren bat jotzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Idazkuntza

Erantsitako 36. grafikoa.
**Idazten duten pertsonak (arte- edo kultura-praktika modura), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Argazkilaritza

Erantsitako 37. grafikoa.
**Amateur mailako argazkilaritza praktikatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Urtean gutxienez sormen-jarduera bat egiten duten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Arte-trebakuntza

Erantsitako 38. grafikoa.
**Ikastetxetik kanpo, artearekin edo kulturarekin lotutako gaiei buruzko ikastaroak edo trebakuntza-ekintzak egin dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

Musika (Musika-tresnak jotzea)

Erantsitako 39. grafikoa.

**Musika-tresnaren bat jotzeko ikastaroak edo trebakuntza-ekintzak egiten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Ikastetxetik kanpo, ikastaro edo trebakuntza-ekintza artistikoak edo kulturalak egin dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Dantza

Erantsitako 40. grafikoa.

**Dantzako ikastaroak edo trebakuntza-ekintzak egiten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Ikastetxetik kanpo, ikastaro edo trebakuntza-ekintza artistikoak edo kulturalak egin dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Margolaritza edo marrazkigintza

Erantsitako 41. grafikoa.

**Margolaritzako edo marrazkigintzako ikastaroak edo trebakuntza-ekintzak egiten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Ikastetxetik kanpo, ikastaro edo trebakuntza-ekintza artistikoak edo kulturalak egin dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Praktika digitalak

### Interneterako sarbidea

Erantsitako 42. grafikoa.
**Interneten erregularki sartzen direla adierazi duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Kultura-praktika digitalak

Albisteak, egunkariak edo aldizkariak zuzenean irakurtzea

Erantsitako 43. grafikoa.
**Interneten albisteak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Kultura-informazioa bilatzea

Erantsitako 44. grafikoa.
**Musikari, zinemari, liburuei eta abarri buruzko informazioa bilatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Wikiak kontsultatzea

Erantsitako 45. grafikoa.

**Wikiak kontsultatzen dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Musika entzutea

Erantsitako 46. grafikoa.
**Interneten zuzenean musika entzuten duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Kultura-edukia duten plataforma digitaletara harpidetzea

Erantsitako 47. grafikoa.
**Kultura-edukiko plataformaren batean kontua duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Kontu mota

Erantsitako 48. grafikoa.
**Kontu mota, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internetera erregularki sartzen diren eta plataformaren batera harpidetuta dauden pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Plataformen eduki-tipologiak

Erantsitako 49. grafikoa.

**Elkarrizketatutako pertsonak harpidetuta dauden plataformen kultura-edukien alorra (%)**




Oinarria: Internetera erregularki sartzen diren eta plataformaren batera harpidetuta dauden pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Sare sozialak parte-hartze kulturalean

Beste egile batzuen material artistikoa partekatzea

Erantsitako 50. grafikoa.

**Interneten beste egile batzuen material artistikoa partekatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Beste artista batzuk ezagutzea edo haiekin harremanetan jartzea

Erantsitako 51. grafikoa.

**Internet beste batzuk ezagutzeko edo haiekin harremanetan jartzeko erabiltzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Norbere material artistikoa partekatzea

Erantsitako 52. grafikoa.

**Interneten norbere material artistikoa partekatzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Sare sozialetan hausnarketak idaztea

Erantsitako 53. grafikoa.
**Sare sozialetan hausnarketak idazten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Kultura-gaietako forotan parte hartzea

Erantsitako 54. grafikoa.

**Kultura-gaietako forotan parte hartzen duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

Webgune edo blog pertsonal batean idaztea

Erantsitako 55. grafikoa.
**Webgune edo blog pertsonal batean idazten duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Internet modu erregularrean erabiltzen dutela dioten pertsonak

[Txostenera itzuli]

# Euskarazko parte-hartze kulturaleko ohiturak

## Euskara jakitea

Erantsitako 56. grafikoa.
**Pertsonak, euskararen ezagutzari jarraiki (euskal hiztunak / erdaldunak), gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Parte-hartze orokorra

Erantsitako 57. grafikoa.
**Euskarazko kultura-jardueretan erregularki parte hartzen dutela adierazi duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Praktika eszenikoak eta musikalak euskaraz

Antzerkia euskaraz

Erantsitako 58. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan euskarazko antzerki-emanaldiren batera joan diren pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Musika euskaraz

Erantsitako 59. grafikoa.
**Eskuarki euskal musikariak edo musika-taldeak entzuten dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Bertsolaritza

Erantsitako 60. grafikoa.
**Azkeneko 12 hilabeteetan bertso-saioren batera joan diren pertsonak (%)**




Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan arte eszenikoetako ikuskizunen batera joan den biztanleria

[Txostenera itzuli]

## Euskarazko ikus-entzunezko praktikak

Zinema euskaraz

Erantsitako 61. grafikoa.
**Euskaraz azpitituluak jarritako edo euskarara bikoiztutako filmak nahiago dituzten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




[Txostenera itzuli]

## Irratia eta telebista euskaraz

Erantsitako 62. grafikoa.

**Telebista eta irratia euskaraz bakarrik, batez ere euskaraz edo euskaraz zein erdaraz kontsumitu dituzten pertsonak (%)**




[Txostenera itzuli]

## Euskarazko irakurketa-praktikak

Euskarazko liburuak

Erantsitako 63. grafikoa.
**Azkeneko 3 hilabeteetan noizbait euskaraz irakurri duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Azkeneko 12 hilabeteetan libururen bat irakurri duten biztanleak

[Txostenera itzuli]

## Euskarazko egunkariak eta aldizkariak

Erantsitako 64. grafikoa.
**Egunkariak edo aldizkariak euskaraz bakarrik, batez ere euskaraz edo euskaraz zein erdaraz kontsumitu dituzten pertsonak (%)**




[Txostenera itzuli]

## Praktika digitalak

### Irakurketa eta musika

Erantsitako 65. grafikoa.

**Interneten euskaraz bakarrik, batez ere euskaraz edo euskaraz zein erdaraz irakurtzen edo musika entzuten duten pertsonak (%)**




Oinarria: Internetera erregularki sartzen diren pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Sare sozialak eta foroak

Erantsitako 66. grafikoa.

**Euskaraz bakarrik, batez ere euskaraz edo euskaraz zein erdaraz sareetan nabigatzen edo foroetan parte hartzen duten pertsonak (%)**




Oinarria: Internetera erregularki sartzen diren pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko arrazoi nagusiak

<u>1/5 arrazoia: Euskararekiko konpromisoa</u>

Erantsitako 67. grafikoa.

**Euskararekiko konpromisoa euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko beren arrazoi nagusietako bat dela uste duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

2/5 arrazoia: Lagunak, senitartekoak edo norekin joan

Erantsitako 68. grafikoa.
**Euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko beren arrazoi nagusietako bat horietan norekin parte hartu izatea (senitartekoak edo lagunak) dela uste duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## 3/5 arrazoia: Eskaintzaren kalitatea

Erantsitako 69. grafikoa.
**Euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko beren arrazoi nagusietako bat eskaintzaren kalitatea dela uste duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

4/5 arrazoia: Hurbileko eskaintza kopurua

Erantsitako 70. grafikoa.

**Euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko beren arrazoi nagusietako bat hurbileko eskaintza kopurua dela uste duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## 5/5 arrazoia: Hizkuntzak ematen duen erosotasuna

Erantsitako 71. grafikoa.

**Euskarazko kultura-eskaintzan parte hartzeko beren arrazoi nagusietako bat hizkuntzarekin sentitzen duten erosotasuna dela uste duten pertsonak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak

[Txostenera itzuli]

## Informazio-kanalak

Erantsitako 72. grafikoa.
**Inkestatutako pertsonen ustez euskarazko kultura-eskaintzaren informazio-kanal nagusiak, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oinarria: Kultura-jarduerak eskuarki euskaraz egiten dituzten pertsonak
Oharra: “Beste batzuk” kategoria ezabatu egin da grafikotik, irakurterrazago egiteko helburuz, nahiz eta barrak % 100ean metatzen diren, zeharkako irakurketa errazte aldera

[Txostenera itzuli]

## Eskaintzaren mugak

Erantsitako 73. grafikoa.

**Pertsonak, euskarazko kultura-eskaintzari dagokionez baloratzen dituzten mugei jarraiki, gurutzaketa-aldagai ezberdinen arabera (%)**




Oharra: “Beste batzuk” kategoria ezabatu egin da grafikotik, irakurterrazago egiteko helburuz, nahiz eta barrak % 100ean metatzen diren, zeharkako irakurketa errazte aldera

[Txostenera itzuli]

# 2. ERANSKINA: INKESTAREN FITXA TEKNIKOA

Laginaren informazio teknikoa aurkeztuko dugu labur, zeina zabal daitekeen txosten metodologikoa erabilitako galde-sortarekin batera kontsultatuz (agiri biak daude eskuragarri Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean).

| | |
|---|---|
| **Biztanleria- eta administrazio-eremua** | Euskal Herria: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea eta Ipar Euskal Herria |
| **Denbora-eremua** | 2018ko iraila-abendua |
| **Laginaren diseinua** | Ausazko laginketa geruzatua esleipen ez-proportzionalarekin |
| **Tamaina** | 6300 (6296 haztapenaren ondoren) |
| **Lagin-akatsa** | ±% 1,26 (Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunean eskuragarri dagoen txosten metodologikoan kontsulta daiteke lagin-akatsaren estimazioa gurutzaketa-aldagaiek osatzen dituzten kategorietarako) |
| **Konfiantza-maila** | % 95,5 gehieneko indeterminazioko kasuan (p=q=% 50) |
| **Geruzak eta kuotak** | ◆ Administrazio-eremuak<br>◆ Udalerriaren biztanle tamaina<br>◆ Sexua<br>◆ Adina<br>◆ Euskara jakitea |
| **Elkarrizketa egiteko metodoa** | Ordenagailuz lagundutako telefono bidezko elkarrizketa |
| **Elkarrizketen iraupena** | 10-30 minutu |
| **Haztapena** | Geruzen eta kuoten adierazgarritasuna ziurtatzen da (horrek esan nahi du trukean ez duela eskaintzen azterketako unibertsoaren antzeko proportziozko banaketa bat). |

Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco